

...eta!  
**K**ittoa!

2017-VI-9

1.019 zkia.

Iraganeko altxorren  
**GORDELEKU**  
**ARTXIBOa**

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak  
Gremioen koordinazioa etab.



**JORGE VEGA S.L.**  
**IGELTSERITZA**

Tel. 943 20 83 26 / 607 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34

F. Calbetón, 4 - 3. solairua [jorgevega.eibar@gmail.com](mailto:jorgevega.eibar@gmail.com)

# gremioen gida



943-206776



## ANTENAK

### BALATZ

Instalakuntzak eta konponketak antenak

Bidebarrieta, 37  
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08  
Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa. 943 12 73 50  
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

943 530 356  
688 674 242  
669 934 964

### electricidad iparelek s.l.

INSTALAZIOAK ETA  
MANTENIMENDUA

iparelek@gmail.com iparelek@iparelek.com



TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

610 532 922

## IGELTSEROAK



Eraikuntza  
Erreformak  
Igeltseritza

Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun hobez  
goza dezazun

Azitin Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
www.irazabal.net

## ARKITEKTOAK

olatz etxeberria martinez ARKITEKTOA  
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberria

arkitektura, hirigintza eta peritazioak  
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoak

Mekola, 7 - behea  
Tel/Fax 943 70 21 12

www.arquitectura-ei.com



## ERAIKINEN MANTENUA

### I.T.E.

INSPECCION  
TECNICA DE  
EDIFICIOS



ERAIKINEN  
IKUSKAPEN  
TEKNIKOA

### E.I.T.

info@ajtoficina.com tlf. 943 80 18 30

AJT zihurtasuna S.L.P.  
Barrena, 6 - behea ezk.

## KRISTALAK



TAILERRA: ERREKATXU, 3an

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com

ERAKUSKETA

eta faxa: 943 203 903 Arikixaneko Zubian

## AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea

Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA

EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ERREFORMAK

### ESTUDIOS ARRILLAGA

PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-

605 713 168

943 744 019

## GARBIKETAK

### Limpieza Multiservicio Eibar

Superficie  
mota guztietako  
garbiketa eta  
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082

Mobila 688 609 171

www.multiservicioseibar.com Barrena, 21-1.F



## ELEKTRIZITATEA

### egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac  
ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62

630 95 73 45

943 20 06 97



### TREJO GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557

Faxa: 943-752556

16 Postakutxatila - Sorluze

Garbiketa eta  
mantenimendua

## PINTURAK

### baglietto

PINTOREAK

Zoru mota guztiak

Pinturak

Dekorazioa

Errebal, 21

Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

### MALVAR

PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea

Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900

Mobila. 656 784 396

### VICTOR GONZALEZ FRAIZ

PINTURA  
OROKORREAN

BARNE eta KANPOKO

dekorazioa eta pintura,

FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,

ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-

696-565394 / 943-030540

victor-fraiz@hotmail.com



**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkarte.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkarte@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,  
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpuru.

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**  
Maialen Belaustegi.

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta Maider Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALA:**  
J.L. Gorostegi.

**BANAKETA-ARDURADUNA:**  
Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.100 ale.

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\* ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzukizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

# eskutitzak

## – BIZITZAKO OZTOPOAK JARDIÑETAN –

Batzuek diote bizitzako oztopoak zirkunstantziak direla, eta horien gainetik borrokan jarraitu beharra daukagula. Hori da asteartean Jardiñetan ikusi nuen: aitzitza-amamak lagunarteko solasaldian eta sinadura-bilketan, gauza simple bat eskatzeko: auzo DUIN bat.

Beren begietan zalantza gogorra nabari zen: agian ez direla ikustera iritsiko. Zahartzaroak baka-

rrik ematen duen jakinduria eta eskuzabaltasuna zerien beren begiei.

Justua den zerbaiten alde borrokatzera animatu gintuzten. Iggailua eta sarbide egokiak, orain!. Ez ditzagun Jardiñetako etxeetan betiko preso utzi. Askotan agindu eta injustuki ahaztutako sarbideak dira. Zuengatik doa!

PEDRO EREÑA (ALDATZE-JARDIÑETAKO BIZILAGUNA)

## – ZERTAN DABILTA SANJUANEKIN? –

Aurtengo Sanjuanetako egitarau ofizialak zur eta lur utzi gaitu. Badaramatzagu hainbat urte egoera kaskarrak ohartarazten, eta PSOEren Udal Gobernuak okertu baino ez du egiten. Horren aurrean, inkesta bat plazaratu genuen gure ikuspuntua Eibar-ko gazteekin partekatze aldera. Erantzuna argia izan zen: 1.143 partaide eta horien %85 kontzertu eskasiaz kexu. Emaitzak Udalari helarazi genizkion eta PSOEek gaia saihestu du. Koadrila arteko jokoa aurten Itzian egingo dira, izan ere, zezen plaza erabileraren anitzeko gune lez saldu bazuten ere, prak-

tikak demostratu du hala ez dela. Enbolatuak? Ezinezkoa. Aurtengo Sanjuanak bariku, zapatu eta domekan jausten direla aitzakiatzat hartuta, kontzertu gehiagorik ez jartzea erabaki du Udal Gobernuak; asteburuetan giroa berezkoa dela argudiatuta. Gaituburen kontzertua izango dugu bai, baina astebetehenago. Hortaz, ekainaren 23, 24 eta 25ean, zer? Betiko "korta-pega" eta monotonía. Eskerrak, behintzat, eibartarrok berezko giroa sortzen jaiok garen!

EIBARKO EGI

## – ORDEZKAPEN POLITIKAREN SALAKETA –

Jakingo duzue martxoan greba egun bat egin eta gero, maiatzean beste bi eguneko greba deialdia (16 eta 23rako) egin dutela irakaskuntzako sindikatu nagusiek, eta ikastetxe honetako langile batzuek, egindako aldarrikapenak ezinbestekotzat joa, deialdiari erantzun diogula greba eginez.

Eskatzen duguna ondokoa da: Hezkuntza publiko langile kopurua handitzea / Langileen behin-behinekotasuna murriztu eta egonkortasuna handitzea / Gelako ikasle kopurua gutxitzea / Langileen eroste ahalmena berreskuratzea / Ordezkapenak lehen egunetik egitea / Bajak bere osotasunean ordaintzea / Erretiroa erraztu eta laguntzeko neurriak berreskuratzea / LOMCE eta HEZIBERRI bertan behera uztea.

Aipaturiko ordezkapenen betetzeari dagokionean, badira urte batzuk Hezkuntza Ordezkaritzak ikasleak bost egun irakasle ordezkorik gabe uztea erabaki zuenetik. Neurri hori irakaskuntzaren kalitatearen aurkakoa da eta gure aldarrikapena da hori lehengora itzultzea, ordezkapenak lehen egunetik egitera, alegia. Baina, hori baino okerragoa da Hezkuntza Ordezkaritza egiten ari dena, zenbait kasutan

bajak ez baitira betetzen hamargarren, hamabosgarren edo baita hogeigarren egunera arte ere.

Horixe da, hain zuzen ere, aurtengo ikasturtean gure ikastetxean gertatu dena. Egon diren gaixotasun bajetako lau baino ez dira bete bosgarren egunean. Informatikako irakaslearena hamargarren egunean bete zen, orientatzailearena hamaikagarrenean, euskarakoa hamabigarrenean eta musikakoa hogeigarrenean. Horrez gain, norbere eginkizunengatik soldatarik gabeko baimena hartu duten irakasle batzuen ordezkorik ere ez dute bidali.

Horiek horrela, 73 egunetan gainontzeko irakasleek zaintzen bidez bete dituzte irakasleen ez etortzeak (gaixotasun bajak, ordaindu gabeko baimeak), Eusko Jaurlaritzak irakasgai horietako ordezkorik irakasleak bidali ez dituelako.

Hori, jakina, ez da bakarrik gure eskolan gertatu, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako gainerako eskola guztietan ere antzeko egoeran daudelako. Horregatik gure kezka konpartitu nahi izan dugu zuekin guztiekin, gure gazteen heziketarekin benetan arduratuta gaudelako.

ITZIOKO 32 IRAKASLE ETA 3 SUKALDARI

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**LODIKOTE.**- Oso lodia, gaztelarazko 'gordinflón'. "Gazte lodikotia dago, alperrik izardixak atara". Ez hain lodia dena, baina lodirantz egiten duena. Gaztelarazko 'rechoncho'. "Gizon lodikotia, baina dantzan airosa egitten dau".

**LOIÑASTIA.**- Loina, erreketako arrain mota baten kumea. "Loñastia ugari agiri zan erreka baztarrian".



LEIRE NARBAIZA

## Guardia zibilla

Eibarren, herrixan, berdegune klase bi dakaguz: berdez pinttatuak, eta Guardia Zibillaren kuartela, Egiguntarren kalia. Arbola gitxi dittugu, uniforme berde larregi.

Toki edarra okupatzen dabe todo *por la patriakuok*, zezen-plaziakin batera. Eibarren aspalditik dagozen arren, oin zegaitik segitzen dabe hamen? Lehen, bildurra eragitzen ez zebizenian, probaderuan armak zaintzen zittuezen. Star itxi zanetik, eta armak entregau, zertarako dakaguz? "Euskal" berbia daken kartelak kentzeko? Kuartel inguruan aparkau gura dabenak molestatzeko? Gasolinia gastatzeko bueltak emoten patrolekin? Ze funtzio betetzen dabe Eibarren? Zer "zaindu"? Izan be, euren ate pareko negoziuetan lapurreta nahikotxo izan dira azken boladan, baiña eurak ez ei dira konturatu, mutur aurrian izan badira be. Lapurrak uxatzeko be ez badabe balio, zer egitten dabe gure herrixan? Ez da nahikua Ertzaintza eta polizia municipalarekin? Polizia nazionala be juan zan aspaldi baten. Hárek be urtiak emonda herrixan, baiña iñungo penarik barik esan gentsen agur. Txapelokerreri be gustora esango detsegu adixo. Nahi izan ezkeru, jaixa be antolatuko detsegu. Baiña egin daixiela ospa, lehenbailehen. Zona berde hori benetako berdegune bihurtu deigun, arbola eta landariekin, uniforme eta pinttura barik!

## Gure Esku Dago-ko 150 ordezkarien agerraldixa hartu eban Txaltxa Zelaixak

Gure Esku Dago-k sustatuta galdeketak egin dittuen 142 herrixetako ordezkariak, 150 lagun inguru bildu ziran aurreko zapatuan Eibarren, Txaltxa Zelaixan, agerraldi bateratua egin eta bixar Bilbora juateko deiza egitteko. Bixarko antolatua daben ekitaldixan mosaiko erraldoia osatuko da Bilbon, 17:30xetan, Euskadi plazatik abiatuta Eliptika Plazaraino iñoizko galdera ikurrik haundixena jendiarekin irudikatuta. Horrekin batera Herritarron Ituna, euskal komunitade osuari zuzendutako itun demokratikua aurkeztuko dabe. Gastuekin laguntzeko, bestalde, "konpromiso txartela" eta globuak 2 eurotan erosteko aukeria egongo da. Eibartik ekitaldira juateko autobusak antolatu dittue eta 16:00etan urtengo dira Ego Gaiñetik.



*millioi eurotik gorako ingresuekin itxi eban 2016xa IK4-Teknikerrek; aurreko urtiarekin konparauta, diru sarrerak %2'8 igo ziran. 280 lagunek dihardue biharrian ikerketa zentruan; 2013tik 2016ra bittartian dirusarrerak %20 igo dira eta bihargin kopuruak %8,95 egin dau gora.*

## Jeltzaliak Jardinetako igogailluaren aldeko 317 siñadura aurkeztu dittue

Julian Etxeberria eta Jardinetako igogailluaren proiektuaren alde maiatzaren 29xan jaso zittuen 317 siñadurak aurkeztu dittu udalian EAJ-PNVk, aurten martxan ipintzeko eskaeriarekin batera. Jeltzaliak proiektuaren barri emon dabe Obra Batzordian eta lanak lehiaketara etartzeko moduan daguzela emon dabe aditzera. Igogaillua ipintzeko biharren emaitza zelakua izango dan jendiari erakusteko infografia batzuk be preparau dittue eta jendiak ikusteko moduan ipintzia nahi dabe



## Calpera juan dira Untzagako jubilauak

Untzagako jubilau etxeak Calpe aldian ibilli dira oin dala egun batzuk eta, handik bueltan kontau dabenez, Alacant aldian pasau daberen denporia edarto aprobetxau dabe.

## Urki auzoko jaixak ospatuko dittue asteburuan

Aurreko asteko eguenian aurkeztu zittuen aurten 19 urte beteko dittuen **Urki jaixak** Aterpe alkarte gastronomikuan Jai Batzordeko kidiak. Programia osatzeko azken urtiotako ereduari jarraitu detse gixigorabehera eta, egurdixa lagun, aurten be arrakastatsuak izatia espero dabela adierazi eben. Gaur arratsaldian, 19:00etan hasiko dira jaixak eta, bestiak beste, Ustekabe fanfarrekuak girotutako kalejira, auzoko nagusixeri omenaldixa, txikiteua eta 23:00etan hasiko dan Wilson y Los Wilsonetis taldiaren kontzertua egingo dira. Bixar, barriz, 11:00etan ekingo detse egunari, VI. Txiki Krosarekin. Hortik aurrera egun osuan egongo da jaixarekin bat egitteko



aukeria eta arratsaldian ailegauko da jaixetako ikurra bihurtu dan cava eta otarrainska festa, Tarumba Percusion taldekuen musikiak lagunduta. Domeka illuntzera bittartian egingo diranen ordutegixak 24. orrixan, agendan dakazuez.

## autuan

### AECC ALKARTEKUEK ESKER ONA

Gipuzkoak Minbizixaren Kontrako Alkartekuek Eibarko kalietan dirua biltzen ibilli ziran ekaiñaren 2xan eta, horren harira, esker ona azaldu nahi detse eibartarri eta alkarteko boluntarixueri, euren laguntasunari esker 1061,64 euro bildu zittuelako. Alkarteko arduradunak azaldu dabenez, "diru hori minbizixa dakenen zein euren famelixeri arreta eskintzeko, prebenziño arloko esku-hartzerako eta ikerkuntzarako erabiliko da".

### KONTZERTUA PASODOBLIERI ESKINDUTA

Domekan Eibarko Cielito Musika Bandakuek kontzertu berezixa emongo dabe Untzagan, udaletxe azpiko arkupietan: 12:30xetan hasiko dan saian bakarrik pasodobliak joko dittue eta, tartian, Carlos Sanchez-Barbak Eibarko Pedrucho zenzenzalien alkartekuek idatzi daben "El nuestro" estrenauko dabe. Ateri badago 11:15xetan Untzagatik kalejiran abiatuko dira.

## Harrera ona euki eban zapatuko azokiak



Aurreko zaturako oso eguraldi eskasa iragarritta egonda be, azkenian uste baiño euri gixiagi jausi zan eta, horri esker, Egoaziak eta Aldatzenek antolatutako Kontsumo Arduratsua-ren II. Azokia arazo barik egitteko aukeria egon zan. Antolatzailliak azaldu dabenez, azokan eskindu zittuen bidezko merkataritzako eta tokixan tokiko elikagai ekologikuek martxa onian saldu zittuen eta, horregaittik, euren esker ona azaldu nahi detse juandako guztieri.

matrikula zabalik  
2017-2018  
adin bakoitzerako  
neurriko klaseak  
irakasle ingelesekin  
informa zaitez  
605693147 943203197  
bista eder 7 behea EIBAR  
abbiewhiteenglish@gmail.com

BBEWHITE  
english school

## Mintza Egunian sarixa jaso eben Berbalagunak

Aurten Derion ospatu da Mintza Eguna, mintza praktika egitasmuetan parte hartzen dabenen jaixa eta, horren aitzakixarekin Euskal Herri osoko mintzalagunak alkatu ziran: Iruñea, Elizondo, Bera, Doneztebe, Hondarribia, Donostia, Elgoibar, Gasteiz, Soralueze, Getxo, Algorta, Zamudio, Leioa, Barakaldo, Bilbo, Lezama eta Eibartik juandakuak ederki ibilli ziran zapatuan, antolatzailiak preparau zetsen egun osorako programiari esker. Bazkaltzeko 180 lagun alkatu ziran eta bazkalostian sarixak banatu zetsazen Txorierriko berbalaguneri, Solaslaguneri eta Eibarko berbalaguneri. Pozik hartu eben errekonozimendua eta, gaiñera, bertako produktuekin osotutako otarra be



Eibartik juandako Berbalagunetako batzuk, "haunditzen-haunditzen!".

jaso eben. Gaur egunian 6.000 bat lagunek hartzen dabe parte Euskal Herriko 120 herrittan martxan daguazen mintza praktika programetan eta horretako bat da, hain zuzen be, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik Eibarren gartzen dan Berbetan izenekua.



## Klima-aldaketaren kontrako neurriak eruan zittuan Irabazik plenora

Irabazi taldeko M<sup>a</sup> Jesus Agirrek udal-eremuan sustatutako neurriak bittartez klima-aldaketaren kontra borrokatzen laguntzeko moziñua defendidu eban aurreko asteko astelehenian egin zan plenuan. Bere proposamenak bakarrik EAJren babesa euki eban eta, EH Bildu abstenidu eta PSEek kontrako botua emoterakuan, ez zan onartu. Ziñegotzi berdiaren berbetan, "Eibarren ez gara klima-aldaketaren eragiñetatik libratzen eta, globala dan fenomenua geldiarazteko, gure udalerrixan be politika berezixak antolatu bihar dittugu". Asmo horrekin proposatu zittuan, hain zuzen be, ezezezian laga zittuen neurriak: ahal dala garraio publikua erabiltzia, autosufizientiak diran eraikin eta etxebizitzaren energixa-birgaiketa sustatzia, berdegune gehixago sortzia, hondakiñak atzera be erabilli eta bererabiltzeko bidiak zabaltzia eta baso, nekazaritza eta abeltzaintzaren ustiapen jasangarrixa, berotegi-efektuko gasak murrizteko.

## Bizimiñaren aldeko paella jana egingo da Garagardo Jaixaren barruan

Eibar Rugby Taldia, urteroko martxan, San Juan jaixetarako girotzen hasteko Garagardo Jaixa egingo dau aurten be. Datorren asteko martitzenian hasi eta hillaren 18ra arte, egunero zabalduko dabe Untzagako karpa, garagardo eskintza zabalarekin eta edarixari laguntzeko jatekuarekin. Nobedade nagusiña azken egunian (domekan) aillegauko da, Rugby Taldekuak eta Bizimiña alkartiak antolatu daben paella-jan solidarixuaren eskutik. Raziñua 5 eurotan salduko dabe eta tiketak erosteko Guridi, Kultu, Koskor eta Kontent tabernetara jua leike. Batzen daben diru guztia Bizimiña alkartiari laguntzeko izango da.

### PAELLADA SOLIDARIOA

EKAINAK 18 (IGANDEA) 14:00etan  
GARAGARDO KARPAN

5€



**Ezkontzen  
DENBORALDIA**

*Eskatu aurrekontua  
konpromisorik gabe*

[www.dariobus.com](http://www.dariobus.com) – [clientes@dariobus.com](mailto:clientes@dariobus.com)



Tel. 943 741 677

TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO

## Legegintzaldi erdixaren baloraziñua egin dau EH-Bilduk

Oin dala egun batzuk EAJ eta PSE alderdixak eginda-kuauren bidetik, EH Bilduk be legegintzaldi erdixaren inguru-ko baloraziñua egin dau eta, horren arabera, "bi urte honetan PSE kontinista, errepikakorra eta ilusiñorik gabe ikusi dogu, Otaolako Ospitalaren eta Errebal barrixaren txikiari etenbarik tira eta tira egitten". Garapen ekonomikuari lotutako gaixekin oso kritiko azaldu ziran eta atzera be Lantegi Eskolia zabaltzeko premiñia azpimarratu eben. Hirigintza politiketan "PSEK 180 gradu ko bueltia" egin bihar dabela gaiñeratu eben, "herrixaren erre-alidadera moldatzeko". Agurtu aurretik pozik agertu ziran aste honetan IMESA behin betiko likidatu dala eta, nahiz eta 200.000 euro ingurukua izan leikian "swap toxikuen" sententziaren zain segidu.



## Bixarko saio irekixa antolatu dabe Alkoholiko Anonimuak

Alkoholiko Anonimuak alkartia mundu mailan sortu zala 82 urte beteko dira bixar eta, hori dala eta, nahi daben guztiendako saio irekixa antolatu dabe bixar arratsalderako Eibarren, alkartiaren inguruko informaziñua emateko asmuarekin. Alkartiak San Andres elizan dakan lokalian izango da saia, 17:00etan hasita. Espaiñian, edarixakin arazuak dittueneri laguntzeko lehen taldia Madrillen eratu zittuen 1955ian eta harrezkero estatu osuan etenbarik hedatzen jua dira: gaur egunian 9.700 kide inguru dakaz alkartiak, 600 bat taldetan banatuta. Eibarren talde bi dagoz martxan: "Urko 75" eta "Argatxa Taldia". Urko 75 taldiaeren billerak eguztenetan eta barixakuetan izaten dira, 19:30xetan eta Argatxa taldiaerenak, barriz, astelehenetan eta eguenetan, 19:30xetan. Informaziño gehixagorako 629 141 874 / 943 248 474 telefonueta-ra deittu edo aatea3@gmail.com helbidera deittu leike.



## Kaleetan Kantuz-ekuk jaixarekin agurtu eben ikasturtia

Ikasturtiari agur esateko jaixa ospatu eben Kaleetan Kantuz taldietako kidiak aurreko zapatuan: goizian Untzagan alkartu eta gero, eguardixan kalejiran abiatu ziran, bazkaltzera juateko ordua aillegau bittartian herriko kalietan kantuan ibiltzeko. Erretratuan ikusi leikian moduan, aurtan be talde politta batu zan eta, jakiña, ederto pasau eben.



# CAPI GORPUTZ TRATAMENDUAK


Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547



LEHEN



ORAIN



lehen

BESOAK

orain

**PROGRAMA BERRIAK**  
 Tratamendu drainatzaile eta birmodelatzailearen  
**4 saiorako bonoak**

**M a s a j e a k**

Powered by **BODY**



Ipini zaitetz sasoi onean ...

**Hileroko bonoak 80€**

... astero bakarrik 20 minutu eginez

**Pertsonalizatua**

Etxez-etxeko saltzaileekin nola jokatu jakiteko jarraibideak eskaini zituen Jesus Alconero Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoko (KIUB) arduradunak astelehenean udaletxean. Iruzurrak eta egoera korapilatsuak ekiditeko asmoz, etxeko atea saltzaile bati irekitzerakoan zein gauza izan behar diren kontuan argitu zituen. KIUBen bulegoa udaletxeko beheko solairuan dago eta 09:00etatik 14:00etara zabaltzen dute (omic-eibar@kontsumo.net eta 943203843).

## JESUS ALCONERO

(KIUB):

# “Saltzaileek nagusitasun posizioa daukate kontsumitzaileen aurrean”

– **Nola jokatu behar dugu etxez-etxeko saltzaileekin?**

Etxeko atea norbaiti zabalduz gero, nor den jakin behar dugu lehenik eta behin. Identifikazioa eskatu eta nor den eta nondik datorren galdetu behar diogu. Ondoren, pertsona hori atean geratu behar da, ezin diogu hasieratik etxean sartzen utzi, izan ere, ahalik eta azkarren sartzen saiatzen dira normalean. Gero, berak eskaintzen duena behar dugun pentsatu behar dugu. Eskaintza edo salmenta komeni ez bazaigu, ezetz esan behar diogu, eta kitto. Azkenik, saltzaileak jarrera oldarkorra badauka, udaltzainei edo Ertzaintzari deitu. Horiek dira norbaitek etxeko atea josten digunean jarraitu behar ditugun jarraibideak.

– **Salmenta mota horren gorakada somatu duzue?**

Azken aldian egunerok dabilta saltzaileak etxetik etxera. Eibarren jende asko dabil horrela. 75 urtetik gorako 9.000 pertso-

na inguru dauzkagu herrian eta kasu hauetan kalteberak dira. Saltzaileek denetarik saltzen diete eta alarma soziala bihurtu da. Lehen liburu edo koltxoi saltzaileak pasatzen ziren, besteak beste, baina orain energia enpresetakoak dira (Fenosa, Endesa, Iberdrola, EDP...). Energetikoen komertzialak legalak dira, kontua da gure etxeetan ez direla modu onean sartzen. Bata bestearen atzetik doaz eta anabasa handia sortzen da. Ondorioz, askok ez diote inori atea irekitzen, baina hori ere ez da kontua, gauza da atea lasai irekitzea. Adindunek badakite kalteberak direla eta ez diote atea inori irekitzen. Pentsa: Iberdrolatik Fenosara pasatzen bada, bi hilabeteren ostean Endesara badao eta gero EDP-ra, demaseko nahaspila sortzen da eta, dena bere tokira bueltatzeko, lan gogorra egin behar da. Horrelako kasu asko daukagu eskuetan eta egoera latza bizi du jendeak horren ondorioz.



Udaletxeko beheko solairuan dauka bulegoa KIUB-k **Ekhi Belar**

– **Saltzaileek formakuntza jasotzen dute nola saldu behar den jakiteko. Kontsumitzaileek kontsumitzen ikasi behar dute?**

Saltzaileek nagusitasun posizioa daukate kontsumitzaileen aurrean, hori da kontua. Gure etxera etorri eta nola saldu jakiteko hainbat ikastaro jaso dituzte ziurrenik. Beraz, euren menpe gaude. Batzuetan modu oldarkor eta zakarrean aritzen dira, eta ezustean hartzen gaituzte.

– **Horrelako egoerak aurrez aurre tratatzea telefonoz moneiatzea baino zailagoa da?**

Telefonoz eskegitzea ere asko kostatzen zaio jendeari. Pentsatzen dute edukazio txarrekoa edo zakarra dela, baina egiten dizuten eskaintza interesatzen ez bazaizu eta, esan eta gero, berean jarraitzen badute, eskegi eta kitto. Telefonoz horrela jokatzeko badugu, pentsa aurrez aurre bagabiltza. Saltzaileek badakite nola jokatu, zein jarrera erakutsi, nondik jo, eta

kontsumitzaileak askotan ez daki nola jokatu.

– **Zein motatako iruzurrak gertatzen dira batez ere?**

Energia enpresak dira modan daudenak. Bezeroak biltzen dabilta, baina komertzialek ez dutenez ezer berririk eskaintzeko, gezurrak esaten dituzte etxeetan sartzeko, sinadurak kopiatzen dituzte, eta abar.

– **Behar beste salatzen dira horrelako egoerak?**

Gero eta gehiago salatzen dira, baina oraindik ez hainbeste. Berriak ahoz aho zabaltzen dira eta jendea salatzen animatzen da. Hala ere, askok ez dakite KIUBek udaletxean bulegoa daukala.

– **Ahoz ahoko horretan ustezko iruzurrak igortzen dira? Paranoian erori gaitzeko?**

Normalean informazio zuzena zabaltzen da eta guk ere, zerbait antzematen dugunean, berehala igortzen dugu oharra. Jendea ez da paranoian erori, baina erne dago orain.





**Muzategi Galdetu**  
 Erdi-berria. Pisu altua.  
 2 logela, 2 komun, egongela  
 eta sukaldea. Guztiz jantzia.



**Muzategi Galdetu**  
 Erdi-berria. 3 logela,  
 2 komun, egongela eta  
 sukaldea. Garajea aukeran.



**Ifarkale 159.000 €**  
 Pisu altua. Ezinhobea.  
 2 logela, egongela, sukaldea  
 eta komuna.



**Ifarkale 185.000 €**  
 Konpontzeko. Azalera: 107 m<sup>2</sup>.  
 Kalefakzioa eta igogailua.  
 Ganbareekin.



**Bidebarrieta Galdetu**  
 3 logela, egongela, sukaldea  
 eta komuna. Kalefakzioa eta  
 igogailua.



**Mekola Galdetu**  
 Pisu altua. 180 m<sup>2</sup>.  
 Trastelekua eta garaje itxia.  
 Ikusgarria.



**San Juan Galdetu**  
 108 m<sup>2</sup>. Bizitzera sartzeko.  
 Kalefakzioa eta igogailua.



**Bidebarrieta Galdetu**  
 Azken pisua, terrazarekin.  
 3 logela. Kalefakzioa eta  
 igogailua.



**Urtzaile 170.000 €**  
 96 m<sup>2</sup>. Pisu altua. Kalefakzioa  
 eta igogailua.



**Karmen Galdetu**  
 Pisu altua, terrazarekin.  
 3 logela. Kalefakzioa  
 eta igogailua.



**Iburgain 132.000 €**  
 Pisu altua. Inguru lasaia.  
 Konpontzeko. Igogailuarekin.



**Urkizu 80.000 €**  
 Aukera ezinhobea. Pisu altua,  
 3 logela. Igogailua kaleraino.  
 Prezioa negoziagarria.



**Toribio Etxebarria 190.000 €**  
 3 logela. Igogailua kaleraino.  
 Bizitzera sartzeko.



**Ipuruako dorreak 280.000 €-tik**  
 Konpontzean eta konponduta  
 dauden etxebizitzak. 3 logela,  
 orientazio desberdinak, garaje  
 eta trastelekua.



**Urkizu 94.000 €**  
 Kapritxora jantzitako atikoa.  
 Igogailua kaleraino.



**Ego Gain Galdetu**  
 Eraikuntza berria. 2 logela,  
 egongela, sukaldea eta  
 2 komun. Balkoi ederra.



**Untzaga 159.000 €**  
 Estreinatzeko. 3 logela,  
 sukalde-jangela, bainu-gela  
 eta komuna. Gazteentzat  
 aproposa.



**Wenceslao Orbea 85.000 €-tik**  
 Eguzkitsua. 2 eta 3 logelako  
 etxebizitzak.



**San Juan 200.000 €**  
 Pisu altua. 105 m<sup>2</sup>.  
 Kalefakzioa eta igogailua.



**Jata Galdetu**  
 Aukera ezinhobea. Ia berria.  
 2 logela, 2 komun,  
 sukalde-egongela, 2 garaje.



**Jata Galdetu**  
 Ezinhobea. Erdi-berria. 3  
 logela, 2 komun, egongela eta  
 sukaldea. Balkoi ederrarekin.  
 Garaje partzela bi.



**Txaltxa Zelai Galdetu**  
 3 logela, egongela, sukaldea  
 eta bi komun. Kalefakzioa  
 eta igogailua. Garaje itxia  
 (etxera sarbide zuzenarekin).



**Jardineteta 112.000 €**  
 Gazteentzat ideala. Oso  
 argitsua. 2 logela, egongela,  
 sukaldea eta komuna.



**Ubitxa 138.000 €**  
 Ezinhobea. 2 logela, egongela,  
 sukaldea eta komuna.  
 Igogailuarekin.



**Mekola Galdetu**  
 110 m<sup>2</sup>. Demaseko bistak  
 eta oso eguzkitsua.  
 Sarbidea Untzagatik.

**Agurtzane Moro eta Andrea Garcia (Ballet Eibarrés-eko kideak)**

## «Balleta txikitatik barruan sartzen zaizun zaletasuna da»

*Juanita Unzuetak 50. hamarkadan "Ballet Eibarrés" delakoa sortu zuenetik eibartar belaunaldi asko pasa dira ballet eskolatik, horien artean gaur egun taldea zuzentzen duen Pili Alonso. Hilaren 15ean, Coliseo Antzokian, ikasturte amaierako emanaldi berezia eskainiko dute, eta taldeko bi dantzarekin egon gara, Agurtzane Moro (16 urte) eta Andrea Garciarekin (18 urte). Balletaz hitz egiten dutenean konpromisoa, lagunartea eta pasioa azpimarratzen dute bi gazteek.*



**- Noiz hasi zineten balletean?**

**Andrea:** 5 urterekin hasi nintzen. Txikitatik gustatu zait mundu hau, eta behin, Juanita Unzueta-ren bilobarekin (Laurarekin) tokia ikustera joan nintzenean, liluratuta gelditu nintzen. Horretaz gain, Koru Gaztean ere banago, eta aurten Arte Ederrak ikasten hasi naiz Leioan. Beraz, artearekin zerikusia daukan guztia gustatzen zait.

**Agurtzane:** Ni geroago sartu nintzen taldean. 6 urte daramatzat, eta taldeko gazteena naiz. Hasieran apurtxo nat urduri nengoen baina orain oso ondo nago. Batxillergoa ikasten dihardut La Sallen.

**- Zertan bereizten da balleta beste disziplinetatik?**

**Agurtzane:** Konprometitu egin behar zara. Coliseoko emanaldia prestatzeko zapatuetan ere joaten gara. Batzutan gogorra da, ordubete ematen dugu berotzen, eta beste ordu bat puntekin, baina disfrutatzen duzu, eta lagunartean zaude, eta hori oso inportantea da.

**Andrea:** Ez da beste dantzak bezala, balletean txikitatik ez bazaude eta ez bazaizu asko gustatzen zaila da aurrera jarraitzea. Gure taldean gaur

egun zortzi gaude, eta datorren urtean gu baino gaztetxoagoak diren beste taldekoekin elkartuko gara. Urte asko daramatzagu eta oso lagunak gara. Dantzak Pilik sortzen ditu, baina gero denon artean moldatzen joateko aukera izaten dugu.

**- Zer prestatu duzue datorren aste emanaldirako?**

Bere garaian Pili Alonsok Juanitarekin ikasi zuen dantza ukrainiar bat egingo dugu. Dantza berezia da eta bertako jantzi tipikoak eramanango ditugu. Desberdina da, eta, Juanitaren omenez egingo dugunez, oso polita izango da. Horretaz gain, dantza klasikoak ere egingo ditugu eta puntekin egindako dantza bat ere bai. Txikitatik nagusiei ikusi diegun dantza da, eta aurten guri tokatzen zaigu! Badaude eskolan betidanik egin diren zenbait dantza, eskolatik pasa direnek ondo gogoratzen dituztenak, eta hauxe da horietako bat.

**- Beraz, estilo desberdinak lantzen dituzue...**

Oinarria klasikoa da, baina beste estilo batzuk ere egiten ditugu. Esate baterako, Gabonetan dantza zelta bat egin genuen kiroldegian.

[www.kolorlan.com](http://www.kolorlan.com)

667 54 89 16

**KOLORLAN**  
PINTURA LANAK S.L.

**ITZULPEN**

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK  
ITZULTZEN DITUGU,  
euskaratik gaztelarrera,  
gaztelerratik euskarara,  
eta ingelesetik euskarara.**

**ZERBITZUA**

[elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com)



BIKOTE LINGUISTIKOAK

# TXALAN TXALAN

- Zergatik eman zenuen izena?
- Zer eman dizu pertsona moduan esperientzia honek?
- Gomendatuko zenuke?



### MUDASSAR:

Jende berria ezagutu, lagunak egin eta hizkuntza praktikatzeko eman nuen izena. Ikerrekin zaletasun eta gune asko partekatzen ditut. Hizkuntza bat praktikatzear gain, herritarrak elkar ezagutzeko aukera bikaina da.

### IKER:

Jende berria eta interesgarria ezagutzeko eta, nahi izanez gero, hizkuntza bat praktikatzeko aukera ematen du "Txalan Txalan" ek. Demaseko esperientzia ari da izaten. Gainera, antzerako adina daukagu, eta zaletasun eta irtetzeko gune berdinak ditugu. Horrek harremana bideratzen lagundu digu. Jendea izena ematera animatzen dut, jakina!



### JAIONE:

Hizkuntza bat berba egiten ikasten da, eta egitasmo honek horretarako aukera paregabea ematen du. Hasieran normala da lotsa sentitzea eta elkar ulertzeko zailtasunak izatea. Baina antzerako adina eta zaletasunak izatean, harremana erraz garatzen da. Aukera bikaina da herriko aniztasuna ezagutzeko eta euskara lantzen hasteko.

### WIDAD:

Jende berria ezagutzeko modu ezinhobea iruditu zitzaidan eta, era berean, gaztelania praktikatu eta euskarara gehiago gerturatzeko aukera. Aurrera begira, herritarrak animatuko nituzke, egitasmoak jendea modu erraz batean ezagutzea ahalbitzen du-eta.



### OIHANE:

Herrian bizi garen jatorri desberdinetako jende gaztea ezagutzeko era interesgarria zela ikusi nuen. Orain arte nire buruari egin ez dizkiodan galderak eta hausnarketak egiteko balio izan dit. Jende gaztea animatuko nuke, herriko aniztasuna eta jendea ezagutzeko modua delako.

### FATIMA:

Gaztelania praktikatu nahi nuen, herriko jende gaztea ezagutzeko aukera nuen bitartean. Hasieran lotsa izan nuen, baina dena primeran joan da, eta oso ondo dago jendea modu informalean ezagutzeko.

### ROKHAYA:

Kanpotik etortzean bertako herritarrak ez dituzu ezagutzen. "Bikote linguistikoa"ri esker bertako jendea, kultura, ideiak, hizkuntza... ezagutu ditzakezu, euskaraz murgildu, azken finean. Bikoteari konfiantza galde diezaiokezu nola esaten den hau edo bestea euskaraz.

### VIRGINIA:

Egunerokotasunean zure inguruko ezagun eta lagunekin egoten zara. Egitasmo honek aukera bikaina ematen du jende berria ezagutzeko, hizkuntza bat praktikatzeko duzun bitartean (nire kasuan, frantsesa). Horretaz gain, bikotearen jatorrizko kultura, ohitura, hizkuntzak ezagutzeko eta, aldi berean, hemen dugun hizkuntzaz, euskaraz eta bere egoeraz mintzatzeko balio du, elkar ezagutzen goazen bitartean.



Gaur ospatzen da Artxibuen Naziñoarteko Eguna, UNESCOk 1948xan Artxibuen Naziñoarteko Kontseillua sortu eta 69 urtera. Halanda be, ez da lehelengo aldixa egun hori ospatzen dala, 2007tik kontuan izan dalako data hori. Baiña mende erdixa pasau bihar izatiak holako eguna ospatzen hasteko nabarmen lagatzen dau jendiarendako zein ezkutuan dagan holako funziñua, dakan garrantzi guztia ahaztu barik. Askoz gertuagokua egitten jaku gehixenori Udal Liburutegixa Udal Artxibua baiño, baiña azken honetan aurkittu leikezen altxorrak merezi dabe, benetan, ikertzaille, genealogista eta unibertsitateko jende askok erakutsi leiken moduan. Eibarko Udal Artxibuak bat egin nahi izan dau Egunarekin eta Sergi Pitarch zuzendarixaren "El último abrazo" izeneko film-dokumental laburra proiektatu dabe gaur eguerdixan euren instalaziñuetan. 20 minutuko film labur horrek Goya sarixa jaso zeban 2015ian eta mikromezenasguari esker finantziatu zan.

**M**endez mende gure herriko udalak sortu dittuan dokumentuak eta dohaintza bidez denboran zihar jaso diran beste hainbat dokumentu osatzen dabe Eibarko Udal Artxibua. Hori dalako Artxibuaren zeregin nagusixa: Eibarko Udalak berak sortzen daben dokumentaziñua batzia, zaintzia, antolatzia eta zabaltzia. Helburua, baiña, dokumentaziño hori herritarren esku jartzia da: izan ikerketarako, informaziñua jasotzeko, dokumentuak aztertzeko edo ad-



## Guztiondako gordetako ALTXORRAK

ministraziño kontuak argitzeko bihar dannerako erabiltzia. Udal barruko zerbitzuak asko erabiltzen dabe Artxibua euren lanerako.

Artxibua Udala bera daganetik existitzen da, udalak bere jardun guztiak idatziz jaso bihar izaten dabelako: alde batetik, lekukotasun gisa; eta bestetik, informaziño moduan erabiltzeko. Artxibuaren inguruko lehen barrixa 1548ko akta batian topau geinke, hor aittatzen dalako, "arca del conçejo de dos cerraduras" izenarekin,

herrixaren eskritura eta pribilegio guztiak gordetzeko erabiltzen zan kutxa.

Udal artxibuan 1409az geroztiko dokumentaziño guztia jasotzen daben artxibo historikua dago, alde batetik. Eta, bestetik, artxibo nagusixa edo Udalak etengabe sortzen dittuan espedientiak, administraziño-balixua dakenak. Eta, halako ezaugarrixekin, bezeruak hiru motakuak dittugu: Administraziñua bera da lehelengua, espediente billa etortzen diran udal-zerbitzuekin, "aurrekarixak bihar dittuelako, datu premiñia dakelako, tramitaziño bati berrekin behar detselako etabar". Ikerlarixak eta historia aztertzaillia be ez dira gitxi izaten. Eta, azkenik, edozein herrittar, datu zehatz baten billa Artxibora jotzen dabena. Hori bai, modu batian edo bestian, "Artxibuak beti bete behar dau datu-babesaren legeak diñuana".

### laz bi millatik gora kontsulta

2016xan Udal Artxibuak 602 lagun -edo bezero- hartu zittuan eta hórrek egindako 2.183 kontsulta atendittu zittuazten: "Gehixenak aurrez-aurre, 1.808; beste 375ak korreo elektronikoko bidez". Bestalde, 98 espediente laga zetsen hala eskatutako udal-departamendueri eta sail hórretatik etorritako "beste 3.028 espediente sartu ziran Artxibuan". Kontsulta gehixenak herriko urbanismuaren inguruak izan ziran eta baita "estadistikakua



Alemaniko ikasliak, Unibersidade Laboralaren alkartrukian, Eibarko Udal Artxibua bisitatu zeben.



Yolanda Ruiz eta Silbia bere laguntzaillia, Naziñoarteko Eguna iragartzen daben kartelaren aurrian. Goixan, biharrian.

be: zensuak, padroiak, matrikula industriak...". Aurrekuaz gain, Artxibuan aurkitzen dittue askok euren lanetarako oiñarrixa, "batez be inbestigaziñorako eta difusiñorako proiektuetan". Ez dira gitxi alkarlanian jarduten daben herriko alkartiak be: "laz raketisten erakusketia egitten lagundu gentsegun eta baitta Asoziaziño Filatelikeri be", diñosku Artxibategiko ardura-dunak. "Ahaztu gabe Eibarko Patrimonixio Industrialaren inguruan eta Untzagako Pla-

zaren eboluziño histori-kuaren inguruan egitten diharduten lanak".

Artxibuak 20 urtetik gora daroiaz bertako dokumentu historiko garrantzitsuenak eta herri-xaren historixako erre-presentatibuenak restau-ratzeko programarekin. laz 1593ko hainbat espe-diente barriztu ziran, "Ei-barko Eskribanietako Fondokuak diranak". Hó-rrek espedientiok oso txarto eguazen, "jasa-

bihar izan daben suaren eta hezetasuna-ren eragiñarengaittik: orriaxk kiskalitta ze-guazen eta papela ezin zan kontsultatu". Euren artian zeguan "Auto de oficio con-tra Domenja de Arguiano" deittutakua eta Yolanda Ruiz Eibarko Artxibategiko ardu-radunarentzat "kuttunetakua" dana: "1594kua da eta Eibarko emakume horri ume bat abandonatzia aurpegiratzen jako. Andra horrek umia bere aittaren etxiaren aurrian lagatzen dau, azken horrek bere ar-duriari be aurre egin deixan".

### Mende laurdena Artxibuan biharrian

Denbora hori daroia Ejea de los Caballe-ros jaioterritik Eibarrera etorritako Yolan-da Ruizek. Aurretik "Zaragozako Protoko-lo Notarialen Artxibo Historikuan eta Ejea-ko Udal Artxibuan" egon zan biharrian. Ondo gogoratzen dau 1991 hartako gure herriko artxibuaren egoeria: "Negarguria emoten zeban. Usategixa deitzen jakon, usuak bertan hartu zebelako kabixa; eta han eguazen be jaixetarako buruhaundi-xak, danborrak, aurikularrak zittuan Fran-coren busto bat... ganbara lez erabiltzen zan. Dokumentu historiko gehixago egua-zen entreplanta baten eta idazkarixaren buleguan ordura arte galduta eguazen Errepublikasasoiko akten borradoriak aur-kittu genduazen", diño orduko sasoi-a gogoratxian.

Zelako "bisitarixak" dittuan galdetuta, "%70 espediente baten inguruko doku-mentaziñua billatzen dabenak osatzen da-be, eta bestiak ikertzaiñiak eta irakasliak di-ra, batez be", diño Ruizek. "Azken aldixan arkitekturaren inguruko boom-a izan dogu, Fakultateko jende asko etorri jako". Ge-nealogistak be bisitari berezixak dittu.

"Eibarkua Gipuzkuako Artxibo onena dala" siñesten dau Yolanda, lan gehixago egitteko bihargin gehixago ez izatia faltan botatzen badau be. Kontsulta-gelak zortzi lagunendako tokixa daka, liburutegi auxi-liarra be badau, kontsultatzeko ordenagai-lluarekin, mikrofilmak irakurtzeko... Penia emoten detsa "web pegorak datu-base guztia zintzilikatze-ko aukerarik ez eskin-tzia". Digitalizatutako 300.000 dokumen-tu egongo dira, "euretara ezin iritsi". Hori da pendiente daguan asignaturetako bat. Eibartartutako aragoi-arra bakarrik dago biharrian eta "batzuetan egun erdirako, beste batzuetan 10 miñuturako" izaten daben laguntasuna asko eskertzen dau; egunotan "eta azarora arte" Silbia katalu-ni-arra dauka aldamenian eta oso pozik da-go berarekin.

Herritarren donaziñuak pisu haundixa hartzen dabe artxibuetan. Eibarren Benig-no Plazaolaren famelixak egindakua da az-kena: "60.000 irudittik gora dagoz hor. Le-helengo inbentarixua egitten dogu eta ge-ro digitalizatzen juango gara". Eibartarrak famelixako dokumentaziñuarekin "sentsi-bilizatuta" dagozela diño eta, "Artxibora ekarri arte ondo zaindu barik egonda be, gero hona etorri eta artxibuan hobeto egongo da esaten deskue". Plazaolaren aurretik, Mario Onaindiaren eta Antxon Ar-tamendiren donaziñuak jaso zittuen. Hori bai, ez dabe dokumenturik erosteko ohi-tturarik: "Gure politikan ez dago halako-rik". Etxeko dokumentu zaharrenarengai-ttik galdetuta, "1409ko litigio bat da, au-rrekorik ez dogu" diño. 1700etik gure egu-nera arte dana dago jasota, "1931tik 1936ra artekua kenduta. Suari errua bota bajako be, sua ez da selektibua, ezta?".



## DOLORES IBAÑEZ LAFUENTE

(Maiatzaren 28an hil zen, 98 urterekin)

**"Zu joan zara, baina, zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza"**

**SEME-ALABAK:** KONTXI ETA JOSE ANTONIO, JOSE IGNACIO (†).  
**BILOBAK:** IKER ETA MARTA, XABI ETA MARTA. **BIRBILOBAK:** MAIALEN ETA MARKEL.

# Lantaldeek martxa betean dihardute Guinnessa lortzeko prestatzen

EMAN IZENA!



Eibarren

**AKEBAI**

“GIZA IRUDI ERRALDOI BATEN ERALDAKETA” KATEGORIAN Guinnessa lortzeko ekitaldia ekainaren 22an, iluntzean, egingo da Untzaga plazan eta, horretarako, Eibarren Akebai plataformaren logotipoa irudikatuko da 2.500 lagunere artean. Egitarauan eta ordutegietan oraindik aldatetaren bat edo beste gerta daiteke, baina gutxi gora-beherako plana hau da: arratsaldeko 18:15ak aldera auzoetatik abiatuko dira kalejirak, Untzagara, musikaz lagunduta. Horretarako, auzotarrak eurei dagokien auzoan batuko dira, aurretik esango zaien toki zehatzean. Hiru auzo edo gune egongo dira: Amaña-Legarre, Urki-Ipuru eta Urkizu-Azitain. Horietako bakoitzean lantalde bat dago martxan eta ekitaldia izango den egunerako kontu guztiak lortzeko auzokako bilerekin ekin zaie.

Auzoetatik irtengo diren hiru kalejirak Untzaga ingurune elkartuek ailegatzean, 19:00ak aldera hasiko da Guinness errekorra gainditzeko prestakuntza Untzagan: arduradunek parte hartuko dutenei argibide guztiak ematen joango dira eta jendeari esandakoari jarraitzea eta pazientzia, hori baino ez zaio eskatuko. Bien bitartean eta jai giroari eusteko animazioa egongo da. Bakoitzak nora, noiz eta nola argi duenean, orduan hasiko da 2.500 lagunere artean Guinnesserako irudia sortzen (19:30ak / 20:00ak aldera) eta, aurreikusitakoa betez gero, 20:30ak inguruan Guinness errekorra lortzea kalkulatu dute. Eta erronka lortu ondoren, jakina, hori ospatzeko jaiak jarraituko du. Horretarako Txaltxa Zelaian erromeria egingo da,

## Guinnessen parte hartzeko izena eman beharko da. NOLA?

### 16 urtetik gorakoek

[www.akebai.eus](http://www.akebai.eus) helbidean eta herriko taberna eta bestelakoetan aurkituko duten formularioa erabili beharko dute izena emateko.

### 12-16 urte bitartekoek (DBH)

[www.akebai.eus](http://www.akebai.eus) helbidea edo paperezko formularioa bete beharko dute, 12-16 urte dituztela adierazita. Ikastetxean eta Gaztelekuan ere apuntatu daitezke.

### 6-12 urte bitartekoek izena

ikastetxean eman beharko dute.

### 6 urtetik beherako umeei

ikusle moduan jaiarekin bat egiteko aukera izango dute, baina ez mosaikoaren osaketan.

21:00etan. Hasieratik, Guinnessa lortzeko ekitaldia alai izatea bilatu dute antolatzaileek eta, gainera, San Juanen atarian izango denez, asmoa ekitaldia jai giroan bizitzeko da. Horregatik ekitaldi guztian zehar animazioa izango da kaleetan, eta Untzagan pantaila erraldoia ipiniko dute, parte hartzen ez dutenek ere ekitaldia Txaltxa Zelaiko harmailetatik jarraitu ahal izateko.

## Izen-ematearen termometroak

### GORA EGITEN jarraitzen du

Honezgero 1.500 lagunek eman dute izena ekainaren 22an iluntzean egingo den ekitaldian parte hartzeko eta egune-

tik egunera ekimenarekin bat egin duten herriko elkarte eta taldeen zerrenda luza-tzen doa: Amaña es la caña, Armerixan Euskeraz (Armeria Eskola), Eibarko Ingeniaritza Eskola (EHU), Sostoa abesbatza, Txosnagunea, Jaixak Herrixak Herrixandako, Ikasten Elkartea, Peña Mandiola, Udal euskaltegia, AEK, Eibarko Balleta, Amañako eskolako guraso elkarte, SD Eibar, La Salle Isasi ikastetxea, Nalua, Marrazketa eta Pintura eskola, Amañako Taborrada, Legarreko jai batzordea, Zerami-ka Eskola, Club Lambretta, Andirao base-rritarren elkarte, Urkiko jubilatuek, Urkiko jai batzordea, Badihardugu Euskara Elkar-tea, ...eta kitto! Euskara Elkartea, Eibarko Udala, PSE Eibar, Urkotronik, Peña Madri-dista, Eibarko Kantuzaleak, Amañako Es-kola, Eibarko EGI, Eibarko PNV, Biraka dantza taldea, Udaletzeko langileak, Ei-barko Ernai, Diapo Lete senegaldarren el-karte, Mogel Guraso Elkartea, Amañako Jai Batzordea, Urbat waterpolo taldea, Tri-tilari gazteak, EMA Ergonomia, Legarre-gain Elkartea, Ipuruako jubilatuek, EH Bil-du, Juan Antonio Mogel Ikastola, Irabazi Eibar, San Kristobalگو jai batzordea, Urki futbol taldea, Mogel Isasi DBH ikastetxea, Kirolbet, San Andres ikastetxea, Urkizu ikastetxea, Delteco Triatloi Taldea, La Pla-zoleta Elkartea, Academia de Idiomas Ne-kane Pastor, Gazte Asanblada, Eibarko Dantza Garaikidea, La Salle Azitain ikaste-txea, Eibarko Klub Deportiboa, Untzagako jubilatuen elkarte, Eibarko Rugby Taldea, Aspe... horiek guztiak badoaz, eta zu? Animatu eta eman izena!



500

1000

1500

2000

2500



## Dena ederto joan zen entseguan

Ekainaren 22an 2.500 laguneren artean osatuko den irudia nola egingo den oso ondo neurtu eta kalkulatu daukate arlo artistikoan zein teknikoan beharrezkoak diren lagunek. Hala ere, eguna ailegatzean dena ondo joango dela ziurtatzearen aurreko barixakuan entsegua egin zuten Untzagan, marrazkiaren neurriak, goitik begiratuta nola ikusiko den... probatzeko asmoz. Parte hartu zutenek ederki bete zituzten antolatzaileek emandako jarraibideak eta, plastiko zein kartulinak erabilita, irudiaren koloreak osatzeko modu ezberdinak probatzen ibili ziren, horren arabera egokienak zeintzuk izango diren erabakitzeko

### Ale Arriola

TALDE ARTISTIKOKO KIDEA

**“Irudiaren diseinuan denak koadratzeaz arduratzen naiz”**

*– Ekitaldiaren harira zein da zure ardurua?*

Alor artistikoa deitu dutenaren ardura dena naiz eta, Asier Lopez de Viñaspre eta Idurre Iriondorekin batera, osatuko den irudiaren diseinuan dena bere tokian modu egokian dagoela ziurtatzeko lanean nabil gehienbat, hau da, diseinuan denak koadratzen duela gainbegiratzea da nire ardura nagusia: kolore bakoitzerako jende kopurua kalkulatu, neurtu, logotipoa osatzeko taldeak nola antolatu... hau da, diseinu eta logistika lanen ardura daukat.

*– Eta lan horretan, zein izan da erronka nagusia zuretzat?*

Ba, egia esateko, diseinu eta logistika kontuak baino lan gehiago eman digu Guinnessaren arduradunekin hartuemanetan ibiltzea. Nahiz eta horren ardura zuzenik ez izan, azkenean euren erantzunaren zain egon beharrek gure lanean eragin du, besteak beste oso luze jo duela. Bestela, diseinuari lotutakoak egiteko errezago moldatu naiz, arkitektura ikasi dut eta, beraz, nondik nora jo banekien. Gogotik egin dugu lana, baina oso gustora!

### Ane Urkiola

TALDE ARTISTIKOKO KIDEA

**“Grabazioan dena ondo irtetzea izango da nire erronka”**

*– Ekitaldiaren harira zein da zure ardurua?*

Batez ere arlo teknikoaren koordinazioaz arduratzen nabil, ekitaldia nola grabatuko dugun pentsatzea eta horrelako gauzak. Grabazioa egiteko hainbat kamera erabiliko ditugu, tartean dena goitik hartuko duen “cable cam” bat. Hori eraikin batetik bestera kable bidez joango da eta horretarako ainguralekuak non eta nola jarri lotzeak lan handia eman digu.

*– Eta lan horretan, zein izan da erronka nagusia zuretzat?*

Nire kasuan, erronka nagusia ekitaldiaren egunean ailegatuko zait. Grabazioan dena behar den moduan irtetzea, ekipoarekin arazorik ez gertatzea, kamerekin hartutakoa pantailan ondo ikustea... horiek izango dira nire erronka eta ardura nagusiak.



Parte hartzeko apuntatu hemen:

**[www.akebai.eus](http://www.akebai.eus)**

# Liburuak



eva alberdi  
—UDAL LIBURUTEGIA—

## Booktuberboom!!!, EAEko I. BookTuber lehiaketa

Urte hasieran, Booktuber fenomenoari buruz hitz batzuk eka-  
rri nituen atal honetara. Oraingoan, berriz nator zuengana abian  
dagoelako Euskadiko I. BookTuber lehiaketa, eta zuk, gazte, par-  
te har dezakezu honetan eta sari interesgarri bat irabazi, zure bi-  
deoa aurkezten direnen artean onena dela erabakitzen bada.

Beraz, 14-18 urte bitarteko gaztea bazara eta Youtuben ibil-  
tzea atsegin baduzu, misio bat eman nahi dizugu: udako opo-  
rretan euskaraz argitaratutako liburu bat irakurri, edozein, es-  
ku tartean duzun hori bera; har-  
tu kamera, mugikorra edo table-  
ta, egin klik eta grabatu liburu  
horri buruzko iruzkina bideo la-  
bur baten bitartez. Helburua li-  
burua gomendatzea da, beste  
pertsona bat konbentzitzea,  
adieraztea zuk aukeratu duzun li-  
buruak merezi duela irakurtzea.



Ondoren Youtubera igo eta bete Booktuberboom blogeko par-  
te-hartze orria (<https://booktuberboom.wordpress.com/>). Gogo-  
ratu! Grabaketa euskaraz egin behar da!

Bideoak aurkezteko epea 2017ko urriaren 24ko 00:00ak arte  
da. Honekin ez bazaizkizu gauzak garbi gelditu, lasai, Eibarko li-  
burutegian "kedada" bat egingo dugu urriaren 6an eta bertan

azalduko zaizkizue parte hartze-  
ko xehetasun guztiak.

Sariak oso interesgarriak dira:

– Epaimahaiaren saria:

Go Pro kamera + 50 €-ko bo-  
noa liburuak erosteko

– Publikoaren saria:

abentura txango bat 2 pertso-  
narentzako eta 20 €-ko bonoa  
liburuak erosteko

Anima zaitetze eta BookTu-  
ber famatuak izatera heldu zai-  
tezkete!



iñaki  
zubillaga

## Musika

## Fran Salazarren omenez


1981ko uztailaren 5ean Donostiako Be-  
lodromora joan ginen Def Leppard,  
Rainbow eta UFO entzutera. Domeka ez  
da izaten egun aproposena rock kontzertu  
batera joateko, baina Franek eta biok ba-  
geneukan helburu finkoa: Ritchie Black-  
more ikustea.

Gitarrajole bikaina, Deep Purple taldeko  
sortzailea Donostiara zetorren bere talde  
berriaren hirugarren formazioarekin. Ron-  
nie James Dio eta Graham Bonnet abes-  
lariak kanpora botata, orain Joe Lynn Tur-  
ner Blackmoren aukera zen. "Komertzia-  
la", "Deep Purple bukatu ondoren ez da  
betiko musikaria", eta abar. Holako ko-

mentarioak entzuten ziren garai horretan.  
Baina Franentzako jainko txiki bat zen gi-  
tarrajole ingelesa. Eta ni, Franen atzetik,  
mota guztiko musika dastatzen.

Garai horretan kaseteroa nintzen, eta le-  
ku guztietatik lortzen nituen diskoak Fran-  
nek grabatzen zizkidan. Berak ipintzen  
zuen autoa eta elkarrekin hainbat eta hain-  
bat kontzertuetara joan ginen. Hasieran  
Donostiara, gero Bilbora, Bergarara, ... Ju-  
das Priest, Ultravox, Ángeles del Infierno,  
Peter Gabriel, Scorpions, Accept...

Ezaguna hiltzen zaizunen gauza politak  
esaten dira bere oroimenez: Franen ka-  
suan ezin ukatu akats mordoa zituela, bai-  
na bere proiektuetan burubelarri sartzen  
zen horietakoa zen... Isiltzen ez zena, gai-  
nera. Orain, bere gorputzak atseden har-  
tu duenean, ni Hellfestera joango naiz da-



torren asteen eta, nola ez, ondo akorduan  
izango dut zelako gogoekin joaten ginen  
sentsazio berriak dastatzera edozein mu-  
sikarekin.

Eta, kasualitatez, Deep Purple entzun-  
go dut. Denbora pasata, Gillan, Paice eta  
Glover geratzen dira, baina betiko esen-  
tziak ere hor izango dira beti, Franek ondo  
probestu zituen esentzia bereziak.





## Azkena Adahirentzat foball zaletuaren torneoko Kopa

Kepak, Jonek eta Manzanok sartutako golekin nagusitu zitzaion Azkena Adahi Bar EzDok taldeari foball zaletuaren Kopako finalean; Eduardok sartu zuen galtzailearen gol bakarra. Zapatu goizean jokaturako final horren ondoren, denboraldi honetako sariak banatu zitzaizkien sailkapen bakoitzeko irabazleei. Ligari dagokionez, Garajes Garciak, Bar EzDok-ek eta Limpiezas Machado Tankemans-ek jaso zituzten hiru lehenei zegozkienak. Txapelketa berean, kiroltasunaren saria Slow XOK taldearentzat izan zen, Kuki Saria gol gutxien jasotako atezainarena Garajes Garciako Javier Delgadoarentzat, eta goleatzaile nagusienarena Machado Tankemans-eko Yosu Alvarezarentzat. Asier Hernandez denboraldiko epaile izendatu zuten eta Jon Larreategi finaleko jokalaria onena. EzDok txapelik gabe geratu bada ere, bigarren geratu da torneo bietan.



Goian Azkena, Kopako irabazlea. Behean Garajes Garcia, Ligakoa.



Yosu goleatzailea.



Delgado atezaina.



Larreategi, finaleko onena.



## Waterpoloko kadeteak Ligako irabazle

Urbateko kadete mailako taldeak Euskal Herriko Liga bereganatu du, partidurik galdu gabe eta lehiaketa amaitezko bi jardunaldiren faltan. Hemendik aurrera taldea Kanaria Handian uztailean jokatuko den Espainiako txapelketa hasiko da prestatzen. Azken jardunaldian infantil mailako hainbat jokalaria alineatu zituen eta, hala eta guztiz, Getxori 14-8 irabazteko gauza izan zen. Infantil mailako taldeari, bestalde, partidu bat falta zaio liga amaitezko eta dagoeneko sailkapeneko bosgarren postua ziurtatu du, iazko zortzigarrena hobetuz. Eta alebinetako taldeak bosna berdindu zuen Oiasso Bidasoarekin Orbea igerilekuan jokatutako partidu entrenigarrian.

ARABA EUSKARAZ 2017

**WOW!**  
BASTIDA

**ekainaren 18an**

**IRTEERA**  
09:00etan  
Ego-Gainetik

**AUTOBUS**  
12€

**19:00etan**  
**BUELTA**

**ZERBITZUA**

J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkarte

**FM** Funeraria·Ehortzetxe  
**Mugica**

**EIBAR**  
 Beilatokia  
 Funeuskadi Eibar:  
 Otaola, 27

**ELGOIBAR**  
 Beilatokia:  
 SIGMA Industrialdea  
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

Bulegoa Bidebarrieta, 20

**24 orduko zerbitzu iraunkorra**

**943 20 19 51** [www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

## Ipuruako amateur eta eskola mailako gimnastek denboraldia agurtu zuten aurreko asteburuan

Aurreko zapatuan jokaturako kadete A mailako Euskadiko txapelketan Nahia Gonzalezek brontzeko domina eskuratu zuen, kadete B mailan Maria Cruz seigarren izan zen bitartean. Eta astebete lehenago amateur mailako Euskadikoan ere emaitza bikainak lortu zituzten Ipuruako ordezkariak: Irati Yarza bigarren izan zen senior plus mailan, postu bera eskuratu zuen Eider Ojangu-renek jubencil B mailan, eta Nerea Etxebarria hirugarren izan zen jubencil A mailan. Nagornaiak, Merinok, Urmakaevak eta Helena Jauregik osatzen duten laukoteak prestatzen dituzten kirolariak goi-goian izan dira denboraldi honetan ere, eta alebin, infantil, kadete eta amateur mailako ordezkariak (maila guztietakoak) dominak irabazi dituzte Gipuzkoako txapelketan, eta euretako batzuk baita Euskadikoan ere. Valentzian hilaren 21etik 25era jokaturako den Espainiako txapelketa izango da hurrengo erronka Ele-



ne Varela eta Nahia Arguizentzat, biak ere *“pelota, mazak eta zintarekin egingo duten banakako ariketan”*.

Aurreko zapatuan euriak asko baldintzatu zuen Gimnasiaren Eguna, *“baina gutxienez goizeko saioak egiteko tartea”* izan zuten. Egun berean kalean saldu zuten 03279 zenbakiari egokitu zitzaion zozketatzen zen motorra. Irabazlea Ipuru kiroldegira joan daiteke edo, bestela, gimnasiaipuru@hotmail.com helbidera idatzi.



## Bernedo eibartarra hirugarren izan zen Camille Extreme mendi lasterketan

Eibarko Klub Deportiboko Jose Mari Bernedok lasterketa bikaina egin zuen aurreko domekan Izaban jokaturako Camille Extreme mendi proban eta podiumera igotzea lortu zuen. Berarekin hor goian izan zirenen arteko lehia bizia izan zen proba guztian eta eibartarra Ait Chaou Hassan irabazlearengandik minutu bat eta 41 segundora helmugaratu zen. Chaouk 3 ordu eta 7 minutu behar izan zituen proba osatzeko eta Macias Zapiain bigarrenak 44 segundo gehiago. Eurengandik urruti geratu zen Iñaki Mihura laugarren sailkatua, 3h21'12"-ko denborarekin.

## Pilotan egiterik nahi?



Pilota Eskolan izena emateko aurre-matrikulazioa zabalduko da datorren astean. Horretarako Klub Deportiboko pilota batzordeko blogean dagoen fitxa bete behar da eta, horrez gain, Deporrek eta Udal Kirol Patronatoko bazkidea izan behar da. Entrenamenduek honako ordutegia izango dute: astelehen eta eguaztenetan, 2003 urtekoak eta nagusiagoak (17:00-18:00) eta 2006/2005/2004 urteetakoak (18:00-19:00); martitzen eta eguenetan, 2010/2009koak lehenengo eta 2008/2007koak gero.

## 90 mendizalek hartu zuten parte aurreko zapatuko Eibarko Itzulian

Klub Deportiboko mendi taldeak bi urtetik behin antolatzen duen mendi buelta arrakastatsua izan zen, eguraldia halamodzkoa izanda ere. Batzuk antxintxiketan, baina gehienek oinez egin zuten bidea. Horrela kontatu digu han izandako batek bizitakoa: *“Goizeko zazpiretan urten, eta laster ekin zetsan eurixa... Haxe izan zan gogorrena, lbur Errekatik Egoarbitzarako igoeria. Gero atertu eta ibiltzeko giro freskuakin, Azkonabitza eta Galdaramiño gaindittu eta Goimendiko txabolan salda bero-bero ederra, okela eta txorixo egosixa, arda, txakolin eta sagardauaz lagunduta, indarra berreskuratu eta, Topinburu eta Illordo igo eta Azitaiñera aillegau giñan. Arratera igo eta elizpian frutia geunkan zaiñ: angurria, naranjia... likidoak ondo etorri jakuzen. Krabeliñetik barrero be gora, Aizketara, eta handik Akondia, Garagoitti eta Kala-*



*mua illaran, azken zatixa egitteko. Lauan ibiltzia ahaztu ez jakula konturatzeko lura ixa bape igo barik heldu giñan. Urko izango zan azkenengo tontorra. Puntan alkar agurtu eta aldats behera Eibarrerutz. Egun gogoangarria benetan”*. Hemendik bi urtera izango da aukera berri bat.

## Hiru-txirlo jardunaldi berria bihar Asola Berrin, oraingoan Lehendakari Saria

Aurreko zapatuan Gipuzkoako 48. Hiru-Txirlo bola txapelketa amaitu bazen Eibarko bolatokian, oraingoan bertako sailkapenean geratutako lehenengoko 64 bolarien artean jokatu beharreko Lehendakari Saria hartuko du Asola Berrik, kanporaketa erara jokatzen den torneoa. 17:00etan hasiko den Lehendakariarenaren aurretik tiraldia egongo da 16:15ean. Gipuzkoakoari dagokionez, Floreagako Jose Muñozek parretan irabazi zion San Migueleko Xabier Loiolari, 40 txirlorekin bien arteko berdinketa apurtu ondoren. Euren artean bi txirlora geratu zen Mikel Urkia eibartarra eta azken honi Sergio Ro-



*Mikel Urkia izan da Eibarko ordezkari onena, Gipuzkoakoan 3. sailkatuta.*

driguez eta Bittor Astigarraga taldeki-deek eta San Migueleko Unai Loiolak jarraitu zioten. Emakumezkoetan Asola Berriko Sonia Gomez nagusitu zen, nagusietan talde bereko Bittor Astigarraga eta taldeak San Miguel A, Asola Berri A-ri bi txirlorengatik irabaziz.



## Arrasateko Errugbi txapelketa EzDok taldeko nesken taldeak

Denboraldia ondo amaitzeko, EzDok Eibar Rugby Taldekoek iaiz lortutako garaipena berretsi zuten Arrasateko Errugbi-7ko Txapelketan. Modalitate horretan bereganatu duen bigarren torneoa du aurten eta, horrez gain, taldeko jokalariek urrats garrantzitsuak eman dituzte denboraldian. Amaiur Ligako 3. postuan amaitu duen taldeko bederatzi jokalariek Euskal selekzioarekin jokatzeaz gain, horko lauk eta Naomik errugbi-7ko teknifikaziorako goi mailako dformakuntzan jardun dute eta beste hiruk nazio mailako akademian hartu dute parte.

## Euskadiko txapelketan ere fin ibili ziren Deporreko atletak

Aurreko asteburuan Durangon jokaturako atletismoko Euskadiko txapelketa absolutotan ondo lehiatu zuten Eibarko Klub Deportiboko atletak eta, horrela, baita lau dominarekin bueltatu ere. Julen Teranek urrezkoa eskuratu zuen 3.000 metro oztupoetako proban, Markel Gutierrezek zilarra jaso zuen 10.000 metroko martxa proban (hor Eneko Osoro bosgarren izan zen) eta Jone de Castro eta Andoni Egurrola jabalinarekin lortutako brontzezkoarekin bueltatu ziren. Andoni Galvano, bestalde, 100 eta 200 metroko probetako finalerdietan kanporatu zuten.



## Udako Campus-erako izen-ematea zabalik hilaren 17ra arte

Gehienez jota 70 gazte hartuko ditu astero Eibar FT-k antolatutako Udako Campus-ak eta datorren asteko zapatara arte eman ahal da izena bertan parte hartzeko. Informazioa gehiagorako, interesatuek campus@sdeibar.com helbidera jo dezakete. Aurtengoa campusaren laugarren edizioa da eta 9tik 14 urtera arteko neska-mutiek hartu dezakete parte ekitaldi horretan, hau da, 2003tik 2008ra arte jaiotakoek.

## JUAN M<sup>a</sup> ESTURO IRUSTA

10. urteurrena: 2007-VI-9



*"Hamar urte dira laga gintuzula, baina gure bihotzetan egunero jarraitzen duzu"*

ETXEKOEK





**IRATXE UNANUE  
eta LEIRE KAREAGA**  
(Dibujo Eskola)

## “Londresek bere ‘skylinea’ badauka, guk zergatik ez?”

Ikasturteari agur esango dio laster Dibujo Eskolak eta urte osoan zehar egindako lanak erakusgai ditu Portaleko bigarren solairuko aretoan ekainaren 16ra arte, egunero, 18:30etatik 20:30etara. Ilustrazioa eta genero narratiboa landu dute aurten eskolan, eta era askotako lanak daude ikusgai. Bitxitasun moduan, eskolako haur, gazte eta helduek Eibarko planoak landu dute elkarlanean ‘skyline’ teknika erabiliz, hau da, hiri bateko egitura osoarekin horizonte artifizial bat sortuz. Datorren urtean eskolan izena eman nahi ezker, irailaren 7ra arte egongo da horretarako aukera, Pegoran.

### – *Nolako lanak ikusiko ditugu erakusketan?*

Ikasturte bakoitzean gai bat lantzen dugu, eta aurten ilustrazioa eta genero narratiboan zentratu gara. Bodegoiak, paisaiak, erretratoak... ikasturte osoan zehar egindako lanak daude ikusgai. Historian murgildu gara, baita ere, erretratoek garrantzia oso handia izan dutelako historian. Zineko historian ikur bihurtu diren irudiak eta komikiak ikusi daitezke, ekintza bat kontatzen dutelako. Hori da genero narratiboa, fotoerreportajea bezala. Urtean zehar kartel lehiaketetan parte hartu eta irabazleak izan diren lanak ere ikusi daitezke. Bestetik, alegiak ere landu ditugu. Ikasleei testu bat eman genien eta eurek testu hori irudikatu behar izan zuten taldeka.

### – *Nolako teknikak erabili dituzue lan hauek egiteko?*

Akuarelak, olioak eta pastelak, gehien bat. Genero narratiboa lantzeko gehiago erabiltzen da akuarela, eta olio gutxiago.

### – *Eibarko plano berezia ere landu duzue. Zertan datza?*

...eta kitto!-k proposatutako proiektu batetik abiatu zen. Herriko kaleei izena jartzen dien pertsonaien karikaturak egiten hasi ginen iaz ‘Kaleen izena, pertsonaien izana’ izenburuarekin. Euren argazkiak bilatu genituen lehenik eta karikaturak sortu genituen, baina askoren argazkiak ez ziren agertzen, beraz, euren ezaugarriak kontutan hartuta landu genuen euren itxura. Errotulagailuarekin hasi ginen eta aurten egin ditugun gehienak akuarelaz landutakoak dira.

Lan guztia beste formatu batean ipintzeko aitzakia da planoak. Normalean, ilustrazioaren ohiko euskarriak aldizkari edo liburuak dira. Hori bageneukan, ...eta kitto!-n publikatu genituelako, baina ‘urban sketcha’ ere landu genuenez, paisaia ilustrazio erara marraztu dugu. Londresek bere ‘skylinea’ badauka, guk zergatik ez? Ego ibaia ardatz hartuta, herriko kale, eraikuntza eta bestelakoak irudikatu ditugu ezker eta eskuin.

### – *Sanjuanak ate joka ditugu. Nola doa danborradako karrozaren prestaketa?*

Aurten Eibarko Txirridularitza Elkar-atea omenduko dute, beraz, bizikletak, erroberak eta horrelakoekin apainduko dugu karroza. Aipatutako Eibarko planoari ere keinua egin diogu. Oso karroza eibartarra irtengo da, polita eta alaia.

## Poesia eta musika gaua izango da bihar Ibarkurutzen

Maite Lorenzok zuzentzen duen Itzamna Poesia Tailerrak poesia errezitaldiak eta musika batuko dituen saioa antolatu du, ikasturtea agurtzeko, bihar gauerako Ibarkurutzen. Ekitaldia 21:00etan hasiko da eta Juan Bautista Gisasola abesbatzak, Jose Ignacio Maestre kantautoreak eta Alberto Luis Egia pianojoleak eskainiko dute musika, besteak beste. Eta poesia errezitatzen jardungo dutenek, berriz, zerranda luzea osatzen dute, eibartarrekin batera kanpotik etorriko hainbatek hartuko baitu parte.



## “Sormenezko idazketa” tailerra aurkeztuko dute datorren astean

Leticia Martinez-Alcocerren eskutik ikasturte honetan martxan egon den “Sormenezko Idazketa” tailerrean parte hartu dutenek aurkezpen saio bi antolatu dituzte, tailer horren inguruko informazioa zabaltzeko asmoz eta, bide batez, idatzi dituzten testuetako batzuk jendearekin partekatzeko. Lehen saioa datorren astean, eguaztenean izango da, 19:30ean Untzagako jubilatuetan eta bigarren, berriz, barixakuan, 19:00etan Beheko Toki jubilatuetan.



## San Juan XXIV. marmitako lehiaketa

Aurten ere marmitako lehiaketa egingo da San Juan jaietan. Ekainaren 25ean 11:30ean izango da, Untzagan eta izena emateko epea zabalik dago (ekainaren 16ra arte). Aurten, berritasun modura, lehiaketarako izen-ematea internet bidez egiteko aukera dago, [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) orrialdean. Lehiaketari buruzko informazioa ere helbide horretan aurkituko duzue.



## Emakumeen istorioak saioa martitzenean

Datorren martitzenean Emakumeen Istorioko saioa egingo da Portalean, 18:30etik 20:00etara Pagatxa elkartearen eskutik. Leticia Martinez-Alcocerrek gidatuko duen saioan Maria Montessori pedagogoa italiarrari buruz jardungo dute berbetan. Sarrera librea izango da.


## Baroja Collet-en lanak Donibane Garazin

Itzal aktiboa elkarteak eta Donibane Garaziko Herriko Etxeak antolatuta, Juan Luis Baroja Collet-en "Kartzelaratutako irudiak" erakusketa zabaldu zuten atzo Donibane Garaziko Apezpikuen Presondegian (Zitadelako karrika, 41). Artistaren eskulturak, collageak eta grabatuak uztailearen 23ra arte egongo dira ikusgai, ekainean egunero 11:00etatik 12:30era eta 14:30etik 18:30era (martitzenean izan ezik) eta uztailean, berriz, 10:30etik 19:00era.



## Hiru argazki-erakusketa ikusgai ekainaren 30era arte

Eibarko Klub Deportibo Argazki Taldeak antolatuta, ekainean erakusketa hauek ikusteko aukera izango da: Klub Deportiboan, Juan Quesadaren lanak; Ambigú tabernan, Bakarne Elejalderenak; eta Portalea jatetxean, berriz, Pedro Arriolarenak.



## Zumba eta Bodycombat ekitaldia bihar Untzagan

Jende Xumea taldeak, Txema Ballesteros-en kolaborazioarekin, Zumba eta Bodycombat saioa antolatu du biharko Untzagan, 18:30etik aurrera. Horrekin batera, zozketak, musika, edariak... ere egongo dira. Helduen sarrerak 5 euro balio du eta, 18 urtetik beherakoek, berriz, 3 euro ordaindu beharko dituzte. Sarrerak ez dira aurretik erosi behar, nahikoa izango da momentuan gerturatzearekin. Batzen den diru guztia Bolivian martxan dauden bi proiektuetara bideratuko dute.



## Gurasoak Berbetan Jaialdia egunean

Ekainaren 15ean Urkizuko parkean egingo den Jaialdiarekin agurtuko du ikasturtea Gurasoak Berbetan egitasmoak. Jaialdian gune ezberdinak izango dira, alde batetik eskulan- eta makillaje-tailerrak egongo dira, eta bestetik, DJ Arnok musikarekin girotuko du jaialdia. Ekitaldia arratsaldeko 17:30ean hasiko da eta irekia izango da. Gurasoak Berbetan egitasmoak euskera praktikatzeko aukera eskaintzen die gurasoei, astean behin elkartzen diren taldeetan edo talde naturaletan, hau da, berez eginda daudenetan. Ikasturtea amaitu bada ere, edozein momentutan eman daiteke izena (943200918 / [elkartea@etakitto.eus](mailto:elkartea@etakitto.eus)).

## Iñaki Galparsoro Garcia

4. Urteurrena (2013-VI-5)

Beti egongo zara gure bihotzetan

ZURE FAMILIA





EKHI BELAR

## Dantza ala hil

Lan ederra utzi digu Jon Maya dantzariak. "Dantzazten duen herria ez da inoiz hilko", bota zuen Max Saria jaso zuenean. Ulertzen da, Jon, zein zen zure asmoa. Eskertzekoa da, baina orain herria bizirik mantentzeko dantza egin beharra, tira. Euskaldunak gara Jon, ondo dakizu, txantxa asko egiten da gure burdinneko gerrien inguruan, eta kostatzen zaigula aitortu beharra dago. Kostatzen zaigu, baina topikoekin jarraituz, burugorak gara eta lortuko dugu. Ezina ekin ez gina. Leloak, lemak, ez zaizkigu falta.

Leloak, tentelak, soberan ditugu alboko auzoan (hemen ere). Aktore euskaldun jakin batzuk ez kontratatzen kanpaina zitala jarri dute norbaitek esan duelako hark komentatu diola ez dakit nun entzun duela aktore horiek terroristak babesten dituztela, gure herriko metal talde ospetsuena (beste asko bezala) betatua izan da hainbat herritan eta "euskarak ez du ezertarako balio, hiltzera kondenatua dago". Herioak askotan bisitatu du euskara, soka lepoan estutu dio, baina ezarriak beti aurkitu du azken (aurren) hatsa emateko zirrikitua. Arnasa dagoen bitartean, euskarak bizirik dirau, eta euskararen birrikak oxigenoz beteta daudela erakutsi dute Max sariak.

"Kantatzten duen herria ez da inoiz hilko", abesten zuen Fermin Muguruzak. 2003an, Musika Saria jaso zuenean, txistu eta irainak jaso zituen Egunkariaren itxiera salatzerakoan. Mayak, ordea, txalo zaparrada jaso zuen diskurtsoa amaitzean. Aurrera goaz. Dantzatu dezagun.

## Musika Eskolak 1. maila eskainiko du datorren ikasturtean

Juan Bautista Gisasola Musika Eskolak 1. maila eskainiko du estreinekoz 2017/2018 ikasturtean, 2011, 2012 eta 2013. urteetan jaiotako umeentzat. Maite Arroitauregik emango ditu klaseak, astean ordubetez 4 eta 5 urtekoentzat, eta astean 45 minutuko bi saio, berriz, 6 urtekoentzat. Lau urtetik gorakoei musikarekin lehen kontaktua eskaintzea da asmoa, "onura asko dituelako", Marcos Juaristi Musika Eskolako zuzendari pedagogikoaren berbetan. "Garaipen kognitibo, intelektual eta emozionalean asko laguntzen du musikak" eta gauza bera berretsi zuen Arroitauregik aurreko astean egindako aurkezpenean. Musika Eskolako 1. mailarako



Maite Arroitauregik eta Marcos Juaristik aurreko astean aurkeztu zuten Eskolako eskaintza berria.

izen-ematea zabalik dago Pegoran eta ez da itxiko. Klaseak, berriz, irailaren 5ean hasiko dira eta arratsaldeko 17:00ak inguruan emango dituzte.

## Kontzertuz betetako asteburua Ez Dok tabernaren eskutik

Taberna zabaldu zutela lau urte bete direla ospatzeko, asteburua zuzeneko musikarekin betetzeko moduko egitaraua antolatu dute Ez Dok tabernakoeak. Gaur arratsaldean, 19:00etatik aurrera Margo Cilker & The Crazy Wheels Band eta Dead Bronco taldeek kontzertua emango dute. Bihar, berriz, emanaldiak 12:00etan hasiko dira: Kvalvika, Waah!, Stai Zitto eta Soldado Vasili & El Comité Eléctrico taldeek joko dute, bata bestearen atzetik. Eta arratsaldeko 19:00etatik aurrera Porco Bravo eta EH Sukarra taldeen txanda izango da. Eta asteburua agurtzeko, domeka eguerdian The Reverendos taldekoek emango dute kontzertua eta, jarraian, The Lazy Lester & His Lazy Boots taldeak ekingo dio zuzenekoari. Kontzertu guztiak taberna parean, Toribio Etxebarria kalean izango dira.



Margo Cilker.



## Olinpiada Txikia egingo da bihar Iturburun

Aurreko astebururako iragarri zuten eguraldi txarra zela eta Kirola Euskeraz Bizi jaialdia bertan behera geratu arren, bihar ikastolako Olinpiada Txikia egingo da Iturburun. Ikastolara igotzeko autobusa 09:45ean irtengo da Untzagatik eta 10:00etatik 10:45era bitartean gurasoek ikastetxea ezagutzeko aukera izango dute. 11:00etan,


berriz, ikasle, irakasle eta gurasoek elkarrekin "Niri euskaraz mesedez" abestuko dute eta ondoren kirol ekitaldia hasiko da, adinaren arabera probekin. Horiek amaitzean tarte batean atsedean hartuko dute, nagusien sokatira saioak hasi arte eta, horiek amaitu ondoren dominak banatu eta gero, 14:00ak aldera jaiari agur esango diote.

### Trinitateetako Azoka ELGOIBARREN

Trinitateetako 16. Azoka berezia egingo da zapatuan Elgoibarren. Herriko baserrietako produktak Lekueder parkean ipiniko dituzte salgai, 09:30etik 14:00etara bitartean. Eta, horrez gain, Elgoibarko baserrietan hazitako abereak ikusteko aukera ere izango da, 09:30etik 17:00etara Aita Agirre plazan egongo den erakusketan.

### XLII. Txindurri Eguna asteburuan ERMUAN

Ermuko Txindurri Dantza eta Txistu Taldeak "Txindurri Eguna" ospatuko du asteburuan. Zapatuan dantza poteoarekin hasiko da jaiak, 12:30etik aurrera Orbe Kardinalek plazatik abiatuta. Arratsaldeko 19:00etatik aurrera Oreretako Ereintza Dantza Taldeko eta Ermuko Txindurri Taldeko helduen erakustaldia egingo da eta 20:00etatik 22:00etara, Adolfo Jainagaren erromeriak alaituko du plaza (tartean, 21:30ean, larraintzantza tradizionala egingo da). Domekan jarraituko du jaiak, 11:00etan hasiko den egitarauarekin.



### Erromeria eta aizkora joko EZOZIN

Asteburu bete izango dute Ezozin. Bihar X. Erromerixa Eguna ospatuko da. Urtero bezala, eguerdian hasiko dira dantza saioak eta, elizpean bazkaldu ostean, arratsaldeko erromeria hasiko da plazan, Imuntzo eta Belokirekin. Domekan, berriz, Aitzol Atutxa eta Joseba Otaegik errebantxa jotatuko dute aizkoran, 13:00ean.

## eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

## hildakoak

- Pedro Rodriguez Iglesias. 76 urte. 2017-VI-2.
- Aureliano Benito Saiz. 71 urte. 2017-VI-2.
- Monica Ruiz Padilla. 2017-VI-2.
- Maria Benedited Andres. 94 urte. 2017-VI-4.
- Jose Agirrezabal Altuna. 88 urte. 2017-VI-5.

## jaiotakoak

- Oihan Treviño Hermida. 2017-V-31.
- Luken Azpiazu Duñabeitia. 2017-VI-3.

## farmaziak

- Barixakua 9  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Zapatua 10  
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Domeka 11  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Astelehena 12  
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Martitzena 13  
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Eguaztena 14  
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Eguna 15  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Barixakua 16  
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI - 2017AN-  
Mandiola (S. Agustin, 3)

## telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa .....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak .....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

## SUDOKUA

AURREKOAREN EMATZA

3	4	7	9	6	8	1	5	2
8	6	5	1	3	2	7	9	4
1	2	9	4	5	7	3	6	8
7	8	4	2	1	6	5	3	9
5	3	2	7	9	4	8	1	6
9	1	6	5	8	3	2	4	7
2	7	3	6	4	1	9	8	5
6	5	8	3	2	9	4	7	1
4	9	1	8	7	5	6	2	3

	9			3				
	1							
		7	6	2	1	8		
		5	7	4	3		8	
4								7
	8		5	6	2	1		
		4	3	1	7	9		
							1	
			9				2	

## Barixakua 9

### EZ DOK FEST

**19:00.** Margo Cilker&The Crazy Wheels Band eta Dead Bronco taldeen kontzertua. T. Etxebarrian.

### URKIKO JAIK

**19:00.** Jaien hasiera, Arrateko Andra Mari ikastetxeko jolastokian.  
**19:30.** Kalejira, Ustekabe fanfarrearekin.  
**19:30.** Herri-jolasak, ikastetxeko jolastokian.  
**19:30.** Nagusiei omenaldia, Cepa taberna parean.  
**20:00.** Txikiteo popularra, Ustekabe fanfarrearekin.  
**23:00.** Wilson y Los Wilsonetis (Fito y Fitipaldis taldearen musika). Polonia Etxeberria kalean.

### DANTZA

**19:30.** Eibarko Dantza Garaikidearen emanaldia, Nerea Lodosak zuzenduta. 3 euro. Coliseoan.

### IGERIKETA

**19:45.** XXIX. San Juan Saria. Ipurua kiroldegian.

## Zapatua 10

### OLINPIADA TXIKIA

**09:45.** Ikastolako txikiena. Iturburura joateko autobus irteera, Untzagatik.

### URKIKO JAIK

**11:00.** VI. Txiki Krosa, Urki Kurutzekuan.  
**11:30.** Diana, Galiziako Etxeko gaitajoleekin. Auzoko kaleetan.  
**12:00/14:00.** Puzgarriak eta jolasak. Arrateko Andra Mari ikastetxeko jolastokian.  
**12:30.** Salda eta txorizoa, trikitalariak girotuta, Cepa eta Vila pareko arkupeetan.  
**16:30/18:30.** Puzgarriak eta jolasak. Arrateko Andra Mari ikastetxeko jolastokian.  
**17:00.** XVI. Igel-toka txapelketa, Rioja parean.  
**19:00.** Cava eta otarrainska festa, Tarumba Percusion taldearekin. Auzoko kaleetan.  
**20:30.** Texak orkestraren emanaldia, 21:30ak arte.  
**21:45.** Herri afaria, ikastetxeko jolastokian.  
**23:30.** Berbena, Texas-ekin. Polonia Etxeberria kalean.

### EZ DOK FEST

**12:00.** Kvalvika, Waah!, Stai Zitto, Soldado Vasili& El Comité Eléctrico taldeak.  
**19:00.** Porco Bravo eta EH Sukarra. T. Etxebarrian.

### SQUASH

**16:00.** XIV. Eibarko Hiria saria. Ipurua kiroldegian.

### MAGIA

**18:00.** Antxon Magoa, umeendako. Doan. El Corte Ingleseko terrazan.

### JENDE XUMEA

**18:30.** Zumba eta body-combat masterclass-a, Txema Ballesteros-en kolaborazioarekin. Zozketak, musika, edariak... Sarrera: 5 euro (3 euro umeentzat). Diru guztia Boliviako bi elkartasun proiektuetarako izango da. Untzagan.

### POESIA GAUA

**21:00.** Poesia errezitaldiak, Itzamna Poesia Tailerraren eskutik. Ibarkurutzte iturrian.

## Domeka 11

### URKIKO JAIK

**09:30.** IX. Galdaramiñora igoera.  
**10:00.** Atzegiren mendi martxa.  
**11:00.** Trikitalari eskolako kalejira auzoko kaleetan.  
**12:30.** XIX. Paella Lehiaketa.  
**13:00.** Meza. San Jose Obrero elizan.  
**14:30.** Paella lehiaketako epaimahaiaren erabakia.  
**16:45.** Euskalzumba, Xaiborrekin. Arrateko Andra Mari ikastetxeko jolastokian.  
**18:30.** Txokolate-jana. Arrateko Andra Mari ikastetxeko jolastokian.  
**19:00.** Sariak banatzeko ekitaldia. P. Etxebarrian.  
**19:30.** Musika festa, Agirrereren eskutik. Polonia Etxeberria kalean.  
**20:00.** Traka eta jaien amaiera.

### EZ DOK FEST

**12:00.** The Reverendos eta The Lazy Lester&His Lazy Boots taldeen kontzertua. Toribio Etxebarria kalean.

### KONTZERTUA

**12:45.** Eibarko Cielito Musika Bandaren kontzertua. Untzagan.

## Astelehena 12

### MUSIKA

**17:30.** Musika eskolako ikasleen entzunaldia. Instrumentu desberdinen ikasleen eskutik. Portaleko areto nagusian.

## Martitzena 13

### MUSIKA

**17:30.** Musika eskolako ikasleen entzunaldia. Portaleko areto nagusian. Piano ikasleena 17:30ean Musika Eskolan izango da eta perkusio taldeetako ikasleena 18:00etan Musika Eskolan.

### EMAKUMEEN ISTORIOAK

**18:30.** Maria Montessori, Italiako pedagogoa. Formatzailea: Leticia Martínez-Alcocer. Portalean.

### GARAGARDO JAIA

**19:00.** Eibar Rugby Taldearen eskutik. Untzagan.

## Eguaztena 14

### MUSIKA

**11:30.** Musika Eskolako Jeisa eta The Bunkies taldeen kontzertu pedagogikoa.  
**17:30.** Musika Eskolako ikasleen entzunaldia. Instrumentu desberdinen ikasleen eskutik. Portaleko areto nagusian.

### GARAGARDO JAIA

**19:00.** Eibar Rugby Taldearen eskutik. Untzagan.

### DANBORRADA ENTSEGUA

**19:00.** Danborradarako umeen entsegua.  
**20:00.** Helduen entsegua. B. Sarasketa kaleko 7an.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

## Eguena 15

### MUSIKA

**17:30.** Musika eskolako ikasleen entzunaldia. Portaleko areto nagusian.

### KALEETAN KANTUZ

**17:45.** Kaleetan Kantuz dantzak. Untzagako jubilatua etxean.  
**19:30.** Kaleetan Kantuz abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

### ODOL-EMATEA

**18:00.** Odol-emaileentzat odola emateko saioa. Anbulatorioan.

### GARAGARDO JAIA

**19:00.** Eibar Rugby Taldearen eskutik. Untzagan.

### KALERATZEAK STOP

**19:00.** Kaleratzeak Stop plataformako en bilera irekia. Portalean.

### DANBORRADA ENTSEGUA

**19:00.** Amañako danborradarako umeena.  
**20:00.** Helduen entsegua. Amañako ikastetxean.

### DANTZA

**20:00.** Eibarko Ballet taldearen emanaldia, Pili Alonsok zuzenduta. 3 euro. Coliseoan.



laztanak emoten...

Zorionak, kuadrilla, merendolan izango garen guztien partetik. Maiatzian: NORA Tenibar (2xan), MARKO (4an), ANDONI (19xan), JONE (24an). Ekaiñian: ZULEIKA (10ian), NORA Iriondo (15ian), LOUBNA (26xan). Uztailian: PAULE (19ian), DANIEL (24an). Abuztuan: MARCOS (2xan).



**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



Zorionak, UDAZKEN, gure polittori! Ondo ospatu zure lehelengo hamarkadia, gaur eta asteburu osuan. Musu haundixa danon partez.



Zorionak, UNAI, haraiñegun urtetxua bete zenduan-eta. Musu haundixa aitaxo, amatxo eta Mikelen partez.



Zorionak, AMAIA, maiatzaren 28xan 9 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Mirenen partez.



Zorionak, KLOE, astelehenian 5 urte beteko dozuzelako. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Mararen partez.




Zorionak, MANUELA Fernandez, 85 urte egitten dozun honetan. Musu haundi bat zure seme Miguel Angelen partetik.




Zorionak, OIER Miguel Caravantes, potxoli, hillaren 7xan bost urte bete zenduaz-eta. Asko maitte zaittuen famelixaren partez.




Zorionak, IZARO, astelehenian 9 urte egin zenduaz-eta. Aitxitxa, amama, osaba-izeko, Eder eta Aiurren partez.




Zorionak, BEÑAT, astelehenian 8 urte potolo egingo dozuz-eta: Jarraitu holan, mutiko haundi. Famelixaren partez.



Zorionak, LAIDA, haraiñegun 4 urtetxo egin zenduaz-eta. Musu haundi bat etxeko danon partez.



Zorionak, MAIALEN, haraiñegun urtetxua egin zenduan-eta. Musu pillua famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JARE, astelehenian 4 urte egin zenduazelako. Musu haundi bat aitta, ama eta Jonen partez.



Zorionak, KOLDO!, domekan 12 urte egingo dozuz-eta, mutil haundi! Musu bat etxekuen partez.



Zorionak, AITANA, bixar zazpi urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, tia EDURNE, haraiñegun urtiak egin zenduazelako, eta INIGO, bixar zure eguna ospatuko dogu-eta. Musutxuak bixori famelixaren partez.



Zorionak, BOSKOTE (Txanan, Jon, Jokin, Miren eta Maddi)! Etxeko guztien partez. Urtero bezala, ospatzen jarraituko dogu.

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**

**10ean: 19:45, 22:30**

**11n: 20:00**

**12an: 20:30**

**"El caso Sloane"**

Zuzendaria: John Madden



**(2 ARETOAN)**

**10ean: 17:00, 19:45, 22:30**

**11n: 17:00, 20:00**

**12an: 20:30**

**"Goodbye Berlin"**

Zuzendaria: Path Akin



**(ANTZOKIAN)**

**10ean: 17:00<sup>(1)</sup>, 19:45, 22:30**

**11n: 17:00<sup>(1)</sup>, 20:00**

**12an: 20:30**

**"La Momia"**

Zuzendaria: Alex Kurtzman



**(ANTZOKIAN)**

**10ean: 17:00<sup>(gaztelera)</sup>**

**11n: 17:00<sup>(euskeraz)</sup>**

**"Nur eta Herensugea..."**

Zuzendaria: Juanba Berasategi



**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK** honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.2. Errentan

- Pisua alogagai San Kristobal auzoan. 2 logela, egongela eta sukaldea. Dena jantzi-ta. Egoera oso onean eta sartzeko moduan. Tel. 677-865362. Alex.
- Bi logelako pisua hartuko nuke alokairuan Urkizu inguruan. Tel. 600-355206. Marialui.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 662-012834.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 646-778839.
- 2 logela (edo gehiagoko) pisua hartuko nuke alokairuan. Erdialde-Urkizu inguruan. Tel. 603-618793.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Klub Deportiboko taberna eta sukaldea hartuko duen norbait behar da. Tel. 665-726146 eta info@depreibar.com.
- Martxan dagoen ileapaindegia traspasatzen da Juan Gisasola, 8an. Tel. 688-822007 eta 943-530000.
- Lokala salgai Birjiñape 1-ean. Bulegoa egiteko aproposa. 33 m<sup>2</sup>. Tel. 688-678934.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak (pisuak, bulegoak, pegorak, tabernak) egiteko. Tel. 632-426847.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. 5 urteko esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-397484.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 659-908513.
- Gizona eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko etxean edo ospitalean. Tel. 631-414397.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 634-256471.
- Neska euskalduna eskaintzen da pegorak eta soziedadek garbitzeko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 655-094780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 603-683176.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Orduka. Tel. 631-229025.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Interna. Esperientziarekin. Tel. 633-545148.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-038682. Isabel.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Esperientzia ileapaindegian. Tel. 652-587259.
- Neska euskalduna eskaintzen da uztailean umeak zaintzeko. Tel. 686-925897.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarak egiteko. Tel. 689-571882.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 667-357190.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarak egiteko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta banatzaile moduan. Tel. 602-156712.
- Gizona eskaintzen da margolari eta igel-tsero moduan aritzeko. Tel. 631-618184.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Orduka. Tel. 612-493242.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 620-391779.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gauzez ere), garbiketarak egiteko eta jatetxeetan lan egiteko. Tel. 671-763558.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia handia. Tel. 632-288967.
- Neska euskalduna eskaintzen da uztailean eta abuztuan umeak zaintzeko. Tel. 688-693801.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Orduka. Tel. 631-144327. Maribel.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 642-995089.
- Emakumea eskaintzen da dendari jarduteko eta garbiketarak egiteko. Esperientzia. Tel. 639-423493.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 622-213829.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-408371.
- 47 urteko emakumea eskaintzen da uztailean umeak zaintzeko. Haur Hezkuntzan Goi Mailako teknikaria eta EGA tituluduna. Tel. 660-522271.
- Gizonetako eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 650-513412.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez eta asteburuetan ere. Tel. 608-886701.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Edozein ordutegitan. Tel. 688-630587 eta 632-463048.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 638-963048.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 661-001246.
- Gizona eskaintzen da margolari jarduteko, mekaniko moduan eta komertzial lana egiteko. Tel. 643-072874.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 631-247899.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta pegorak edo etxeak garbitzeko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 662-430951.
- Neska euskalduna eskaintzen da uztailean umeak zaintzeko. Tel. 620-619776.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 692-314985 eta 612-507299.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 631-378463.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 653-319561.

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 642-983430.
- Neska eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-506763.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-218828.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Gauzez ere bai. Orduka. Tel. 632-669488.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 662-012834.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 664-009315.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Esperientzia. Tel. 633-072144.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 635-091262.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Orduka. Tel. 678-814941.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 612-469029.

### 4.2. Langile bila

- Ilea-paintzailea behar da egun osorako Eibarren. Esperientziarekin. Abuztuan opor-irakurketa izango lituzke. Tel. 619-928881.
- Pertsona euskalduna behar da irailetik aurrera umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 615-737483.
- Pertsona euskalduna behar da umeak eskolara eramateko. Tel. 622-004049 eta idatzihona@gmail.com
- Sukaldari-laguntzailea behar da asteburu-rako jatetxe batean. Autoa izatea baloratuko da. Bidali curriculum-a: jate-txea2017@hotmail.com
- Langile behar da ekainaren 17an lan egiteko. Lan erraza da. Bidali curriculum-a: langileibar@gmail.com
- Kamarera/o behar da lanaldi osorako Sorraluzeko taberna batean. Tel. 670-541347.
- Neska euskalduna behar da ume bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 649-781942.
- Kamarera/o behar da lanaldi osorako. Esperientziarekin. Tel. 635-894791.
- Kamarera/o behar da asteburuetan egunez lan egiteko. Esperientziarekin. Bidali curriculum-a: curriculumcafe2017@gmail.com

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- Ingeles Filologiako graduatua eskaintzen da udan umei klase partikularrak emateko. Tel. 617-124275.
- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailerako Matematika, Fisika etabarretako klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak eta 2/3 ikasleko taldekoak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdut/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eus

**Gozatu betidanik nahi izan duzun ekipamendu guztiaz.**

Hyundai Tucson Kosmo Edizio Berezia lurrera heldu da sinestezinezko ekipamendurekin eta beste galaxia bateko 5.550€-rainoko deskontuarekin.

Horren barne daude:

- Ukimen-pantailaz lagundutako nabigazio-sistema.
- Abiarazteko botoia eta gertutasun-detektorea dituen giltz adimenduna.
- Nahigabeko errail aldaketarako sistema eraginkorra.
- Aparkatzeko atzeko kamera gida eraginkorrekin.
- Euri, argi eta aparkatzeko sentsorea, aurrean eta atzean.
- 19 pulgadako aleaziozko uztaiak.
- Berotu daitezkeen bolantea eta jarlekuak.

Eta betiko moduan:

- 5 urterako bermea, km mugarik gabe.
- 5 urterako laguntza errepidean.
- Gainera, zure Hyundaik ez bazaitu konbentzitzen, itzuli egin dezakezu inolako konpromisorik gabe.

Galdetu baldintza bereziengatik zure kontzesionarioan.

# Hyundai Tucson **KOSMO**

Edizio Berezia



**5.550 €**  
-rainoko deskontua

**OARSO CAR**  
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO  
WWW.OARSOCAR.COM

**ELGOIBAR**  
**OIARTZUN**  
Lintzirin Poligonoa, 1  
943 49 48 30

**Olaso Polig., 17 943 74 14 80**  
**BEASAIN**  
Errepide Nazionala, 1  
943 80 40 54

**IRUN**  
Juan Thalamos, 43  
943 63 97 69



Hyundai Tucson Kosmo gama: CO2 emisioak (gr/km): 119-175. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6-7,5.

PSP gomendagarria Penintsulan eta Balearretan Tucson 1.7 CRDI 115CV (84,6kW) BD 4X2 KOSMOrentzat, 5.550€-rainoko deskontuarekin. BEZ, garralioa, matriculazio-zerga, sustapeneko deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta mantenimenduko eskaintza barne. Hyundai-ra Aldatu Plana aplikatu daiteke erabiltako auto baten truke, 6 hilabeterekin, Hyundai berri bat erosten duen bezeroaren titulatasunpean. Eskaintza hau aplikagarria da Cinking Solución Flexible produktuekin finantzatzen duten bezero partikularentzat, Santander Consumer EFC S.A.-ren bitartez, 15.000€ gutxienez, 36 hilabete gutxieneko epean eta 36 hilabete gutxieneko egonaldiarekin. Finantziario finantza-erakundeak aztertuta eta onartu behar du. Eskaintza 2017/06/30era arte da balioskoa. Ixusten den modeloa: Tucson Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantziario lotua. \*Hyundai Motor España S.L.U.-k bere bezeroei eskaintzen dien km mugarik gabeko 5 urteko berme komertziala Hyundai-ren sare ofizialak salduko dituzten Hyundai ibilgailuei soilik aplikatuko zaie, zerbitzu-pasaportearen baldintzen arabera. Kontsultatu itzazu eskaintza, mantenimendua eta bermearen baldintzak Hyundai kontzesionarioen sarean edo www.hyundai.es web-orrian.



## GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

### Oñati gestio heziketa

**MGEP**  
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

#### Izen-ematea

Ekainak 5etik 16ra

#### Eskaintza akademikoa

##### OÑATI GESTIO HEZIKETA

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa
- Nazioarteko Merkataritza

##### MGEP

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemaren Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia



www.mondragon.edu/ogh  
rigarza@mondragon.edu  
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmh  
gmhz.mgep@mondragon.edu  
943 71 21 91 ▪ 664 277 592

# Elikagaien industriarekin lotutako ikasketetan lan aukera zabala dago

Elikagaien sektoreko enpresetan egiten diren lanen kontrola eramateko gaitasuna bereganatzen dute ziklo hau ikasten duten ikasleek.

Laborategietako teknikari, I+G+b arloko teknikari, Ekoizpen prozesuko ikuskatzaile edo Kudeaketa sistemak ezartzeko arduradunak ere izan daitezke.



**PATRICIA ARINA** (Lekeitio, 1973). Nekazaritzako ingenieritza egin ondoren, Elikagaien Industriak zikloa ikasi zuen eta gaur egun Elikagaien Industrien arloan irakasle lanetan ari da.



**JON AZKUE** (Lezama, 1989). Elikagaien Industriak zikloa ikasi ondoren, gaur egun DENTICI enpresan Kalitate arduarekin lanean ari da.



**VERONICA CALZADO** (Donostia, 1980). NORTINDAL enpresan dago lanean, Kalitate taldeko kide bezala IFS taldean, eta titulazio ofiziala lortzeko Elikagaien Industriak zikloa ikasten ari da.

## • *Lanbide heziketa*

### *Erdi maila*

- Beroa sortzeko instalazioak (iturgintza, eguzki instalazioak, gasa)
- Mantenimendu elektromekanikoa

### *Goi maila*

- Administrazioa eta finantzak
- Automatizazioa eta robotika industrialia
- Mekatronika industrialia
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Ekoizpen prozesuak eta kalitatea Elikagaien Industrian
- Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa
- Web Aplikazioen Garapena (2. maila)

### *Eskaintza Partziala*